



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 2023KO ABENDUAREN 14AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA

### 10. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko abenduaren 14an, arratsaldeko seiretan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ez ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Ana Azkoitia Urteaga andrea (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Sonia Vazquez Tejerina. (EAJ-PNV).  
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).  
Igor Isusquiza García J. (EAJ-PNV).  
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).  
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).  
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).  
Asier Altuna Epelde J. (EH BILDU).  
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).  
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).  
Itziar Larrañaga Arrizabalaga A. (EH BILDU).  
Jon Bastarrika Salegi J. (EH BILDU).  
Nagore Orbea Sánchez A. (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).  
Nerea Machado Iparraguirre A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).  
Janire Astigarraga Larrañaga A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).  
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Unai Urkijo Rodriguez, Udal Idazkaria.

### **1.- 2024 EKITALDIRAKO AZKOITIKO UDALA, SAN JOSE EGOITZA, ZUBIAURRE-ELKARGUNE INSTITUTUA, AZKOITIA LANTZEN, S.A.-REN AURREKONTUAK ETA AURREKONTU KONTOLIDATUAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

**“ANTOLAKUNTZA-BATZORDEAREN IRIZPENA**

**AURREKARIAK**

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azaroaren 14ko Antolakuntza Batzordean, gobernu-taldeak 2024ko ekitaldirako prestaturiko aurrekontua aurkeztu zuen Ana Azkoitia Urteaga batzordeburuak abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan oinarrituta, hau da, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, IV. Kapituluaren aurrekontu orokorren gertuketa eta onespena zehazten dituen.

Dokumentua banatu egin zen aztertua izan zedin, eta azaroaren 22 eta abenduaren 11n egindako bileretan aztertua izan da;

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udaleko kontu-hartzaileak, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 6.3 e) artikuluan xedatutakoan oinarrituta, ekonomia- eta finantza-txosten bat egin du, honako hauetarako erabilitako oinarriak azaltzen dituena: aurreikusitako diru-sarreraren eta kreditu-eragiketen ebaluazioa, kredituen nahikotasuna eska daitezkeen obligazioei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko, eta, horren guztiaren ondorioz, aurrekontuaren benetako oreka. Era berean, udal-bitartekoak konpromisozko kredituak finantzatzeko aski direla dioen irizpena eman du.

21/2003 Foru arauko 14.4 Artikuluaren arabera 2024ko Aurrekontu Orokorraren Espedientea sortu da. Bertan dokumentu hauek daude:

Azkoitiko Udalak 2024ko ekitaldirako izango duen aurrekontua, 18.188.000,00 eurokoa

Zubiaurre Elkargune Institutuaren aurrekontua, 2024ko ekitaldirako, 1.149.500,00 eurokoa

Azkoitia Lantzen SA ren aurrekontua 2024ko ekitaldirako, 5.098.136,00 eurokoa

Azkoitiko Udalaren aurrekontu kotsolidatua 2024ko ekitaldirako, 23.385.136,00 eurokoa

Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu aruari buruzko kontu-hartzailearen txostena

Konpromisozko kredituen eranskina

Transferentzia arrunten eranskina

Zorpetze-eranskina

Pertsonalaren eranskina

Inbertsioen eranskina

Udal Lur zoru ondarearen eranskina

Aurrekontu kotsolidatua



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aurrekontuaren betearazte-araua

2023ko aurrekontuaren aurre likidazioa eta 2023ko irailaren 30erarteko aurrekontua kapitulozka exekutatzea.

Ekonomia- eta finantza-txostena

Horregatik guztiagatik, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzarrari irizpen hau onartzea proposatzen dio.

**IRIZPENA**

**1) Behin-behingo onartzea Azkoitiko Udalak 2024ko ekitaldirako izango duen aurrekontua, 18.188.000,00 eurokoa.**

**2º) Behin-behingo onartzea Zubiaurre Elkargune Institutuaren aurrekontua, 1.149.500,00 eurokoa.**

**3) Behin-behingo onartzea Azkoitia Lantzen, SAREN aurrekontua, 5.098.136,00 eurokoa.**

**5) Behin-behingo onartzea aurrekontu kotsolidatua, 23.385.136,00 eurokoa.**

**21/2003 Foru Arauak, 15. artikuluan, esaten du Udalbatzarrak Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jarriko dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta gehien zabaltzen den egunkarian iragarri ondoren, hamabost egunez jarri ere, eta epe hori bukatuta, erreklamaziorik ez bada izan, berriz ere ipiniko dela, osatzen duten aurrekontu guzti-guztiak kapituluka laburtuta, iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.**

**Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek (21/2003 Foru Arauko 17. artikulua) alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.**

**Behin betiko onartutako Aurrekontu Orokorraren kopia bat igorriko zaio Foru Aldundiari.**

Antolakuntza Batzordeak, 2023ko abenduaren 11n egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Ana Azkoitia, Sonia Vázquez eta Juan Bautista Mendizabal

**ABSTENTZIOA:** Asier Altuna, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz, Janire Astigarraga eta Janire Igoa.”

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate andreak azaldu du puntu honetan 2024. ekitaldirako aurrekontuen onarpena proposatzen dela.

Lehenik eta behin nabarmendu du gaurko ez ohiko bilkurara ekartzen den aurrekontu proposamena udal alderdi guztien ekarpenen emaitza dela. Ondoren negoziazioaren faseak azaltzera pasatu da:

Azaroaren 14ko Antolakuntza Batzordean Udal Gobernuak bere aurrekontu proposamenaren berri eman zuen eta sail horri bideratuko aurrekontua azaldu zuen.

Hurrengo astean beste alderdiek bere proposamenak aurkeztu zituzten eta negoziaketei ekin zioten.

Beste udal alderdien proposamenak aztertu ondoren, Alkatearen iritziz, EAJ-k proposatutako aurrekontu proposamenean oinarritu ziren bere lanketa egiteko, aldaketa gutxi proposatuz. Hori dela eta bakoitzak egindako proposamenak aztertu eta batzuk osotasunean adostu dira, baina beste batzuk ordea ez.

Azaldutakoagatik, aurrekontu proiektuaren antolamendua azaltzea aproposa iruditu zaio: Sarreren aurrekontua, gastuen aurrekontua (arloka sailkatua), eranskinak (pertsonal arloarena, inbertsioena, diru-laguntzena, etab.), Zubiaurre Elkarguneko Aurrekontua, Azkoitia Lantzeneko Aurrekontua eta Batzorderen irizpena.

Ondoren aurrekontu bakoitzaren kopurua zehaztera pasatu da:

- Azkoitia Lantzen: 5.098.136,00€. Puntu honetan Azkoitia Lantzenen aurrekontua justifikatzen duten diru sarrera eta gastu nabarmenenak aipatu ditu, adibidez: Txalon Errekako Vialaren obrak, Eusko Jaurlaritzarekin hitzartuta dagoen Txalon Errekako 10.1 eremuko finkaren salerosketa, Lidl zaharreko eraiste lanak eta Azkoitia Lantzenen ohiko gastuak.
- Zubiaurre Elkargune Institutua: 1.149.500,00€. Gogorazi du Elkargunen bidez bi sail kudeatzen direla:

**1. Gazteria:**

**2. Kirola:**

Alde batetik azaldu du aurrekontu honetan ez dutela inbertsiorik sartu, aurreko urtean bezala, egin beharreko obrak gerakina erabiliz egin daitezkeelako.

Beste aldetik, Mas Quatorri egiten zaion diru ekarpena, Elkargunereren kudeaketaz arduratzeko, eta Gazteria zerbitzura bideratzen den diru kopurua aipatu ditu. Mas Quatorren kontratua 2024. urtean amaitzen dela azpimarratu du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Azkoitiko Udala: 18.188.000,00€. Hasteko sarreren atalari erreparatu dio eta diru sarrera aipagarrienak aipatzera pasatu da:

Azaldu du interesen igoerarekin, Azkoitiko Udalak duen saldoagatik, 254.500,00€ko diru sarrera kobratuko duela. Bestalde, Foru Funtsetik jasoko den kopurua nabarmendu du, aurreko urtean jasotakoaren % 6,73 handituko baita. Azkenik, 2022ko protokoloan adostutakoaren ondorio gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari 154.000,00€ko diru ekarpena egingo dio Burdinoleta kaleko lokalak erosketagatik.

Aurrekoa esanda adierazi du etxebizitza hutsen errekarquekin diru sarrera berriak jasotzen hasiko direla eta zerga zuzenetan %5,09ko igoera aurreikusten dela.

Gastuei dagokienez, nabarmendu du aurten 908.000,00€ko mailegu bat aurreikusten dela sarrerak igo ahal izateko eta gastuko partidak handitzeko. Dena den zehaztu du ez dagoela mailegua eskatzeko asmorik, beharrezkoa izanez gero gerakinekin konpentsatzeko asmoa baitago.

Ondoren sortu berri diren partidak azaltzera pasatu da.

- Pertsonal eta Ogasuneko Sailean: UEMAn sartzeko diru ekarpena, Urolako industrialdearen parte izateagatik egin beharreko diru ekarpena (onartutako kapital handitzea dela eta), Nagusia 80ko obra amaitutakoan beheko lokala erosteko partida.
- Hirigintza Sailean: Honako hauek nabarmendu nahi izan ditu:
  1. Hainbat proiektu partida (Atletismo pistaren proiektua, Skate Parkearena, etab.)
  2. Ipintzan komun publikoa eraikitzekeo partida.
  3. Hainbat espaloi eta zebrabideek eraberritzeko diru-ekarpena.
  4. Eraikin Publikoetan eguzki plakak instalatzeko partida. (leku aproposena Xabier de Munibe Ikastola izan daitekeela adierazi du.)
  5. Auto- elektrikoek karga-gailuak jartzeko partida.
  6. Alde zaharra suspertzeko eta eraberritzeko partida.

Azpimarratu nahi izan du aipatutako partida guztiak ez direla Udal Gobernuak proposatutakoak, beste udal alderdien ekarpenak ere jasotzen dira.

- Kirola eta festak: Alkateak jarraipen aurrekontu bezala definitu du. Adierazi du elkarte batzuei diru-laguntza berri batzuk ematea aurreikusten dela eta Andramaixetako aurrekontua handitzea ere.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Kultura eta gazteria: Nabarmendu nahi izan du musika eta antzerki ekitaldietarako aurreikusitako partida baita udal liburutegia itxita dagoenean liburuak bueltatzeko sistemaren instalazioa, azkeneko hau Azkoiti Baik proposatutakoa.
- Hezkuntza eta Euskara: Azpimarratu nahi izan du Euskara sustatzeko ekintza plana eta ikastaroetako diru-laguntza. Aitortu du ikastaroetako diru-laguntzak areagotu direnetik gero eta jende gehiago animatu dela euskara ikastera. Atal honetan gazteen osasun mentala zaintzeko partida gehitu dela adierazi du, EH Bilduk proposatutakoa. Kasu honetan zerbitzua nola eskaini daiteke aztertuko da.
- Gizarte Ongizatea: Alkateak jakinarazi du aurrekontua mantentzen dela aldaketa aipagarririk gabe. Dena den, Azkoitiko Ostatu zerbitzuaren azterketa abian jartzeko partidaren sorrera aipatu du, apartamentu tutelatuak non jarri ahal diren zehazte aldera.
- Berdintasuna eta prebentzioa: Aurrekontu honetan %18ko igoera egin dela zehaztu du. Kasu honetan aipamen berezia egin dio berdintasun planak derrigorrez osatu behar ez dituzten enpresei eskainiko zaien diru-laguntza aipatutako planak martxan jartzeko.
- Alkatetza: Alkateak adierazi du Alkatetzako partidak handitzearen arrazoi nagusia 2024. urtean Azkoitiaren 700 urteurrena dela. Hala ere, 100.000€ko partida azpimarratu nahi izan du, herritarrek erabakitzen dituzten ekimenetan gastatzeko. (Azkoitia Bai-ren proposamena).
- Lanak eta zerbitzuak: Azkeneko urteetan herriko argiterian inbertsio handia egiten ari dela adierazi du, ustez, 96.000,00€ko partidarekin egin beharreko ekintza guztiak burutuko lirateke. Kale garbiketa lizitatzera atera behar dela gogorarazi du, horretarako aurreikusitako partidaren kopurua nabarmendu du. Azkenik, parkeak eta lorategiak atontzeko partidari baita baserri bideen seinaleak eta asfaltatze lanak egiteko partidari erreparatu die.
- Udaltzaingoa: Azaldu du aurrekontu honetako igoera, alde batetik; herriko igogailutan kamerak jartzea justifikatzen duela. Kamerak jartzea erabaki da igogailua askotan matxuratuta



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

dagoelako herritar batzuen erabilera desegokiagatik, beste arrazoi batzuetaz aparte.

Bestalde, jakinarazi du alde zaharreko sarbidea kontrolatzeko dauden piboteak kamara batzuegatik aldatuko direla. Aipatutakoak autoen sarrerak eta irteerak kontrolatuko lituzkete.

- Ingurumena: Alkateak adierazi du aurrekontu honetako partidarik garrantzitsuena Mankomunitateari egiten zaion diru-ekarpena dela. Adierazitakoaz aparte honako partida hauek aipatu ditu:

Mugikortasun plana martxan jartzeko azterketa.

Bilbon ikasten duten ikasleek autobusez joan ahal izateko partida.

Ibaira zaborra ez erortzeko saretxoak falta diren eremuetan jartzeko partida.

Landa eremuko lur-saien mugen digitalizazioarekin jarraitzeko partida.

- Sustapen ekonomikoa: Alkateak azaldu du Partida nabarmenetarikoena Iraurgi Berritzeni egiten zaion diru-ekarpena dela, beste partida guztiak mantentzen dira.

Amaitzeko, Aurrekontuaren amaieran idatziz hartutako konpromisoei erreparatu die, hala nola: Floreaga auzoko hirugarren igogailuaren eraikitzea, Hileta zibilen ordenantza onartu, Atletismo pistaren proiektuaren onarpena eta pista egitea eta aplikazio bat martxan jartzea herritarrek mantenu lan batzuen berri emateko.

Aurreko guztia adierazita, hitza eman die beste udal alderdien bozeramaileei.

Janire Igoa andreak hitza hartu eta honako hau adierazi du:

*“Sozialistok aurrekontuak beti pertsona zaugarriekin pentsatuz, inor atzean laga gabe, herritarren beharrak indartuz eta ongizatea bermatuz egiten ditugu.*

*Azkoitiko PSE-EE udal taldetik EAJ-k azaroaren 14an aurkeztutako aurrekontu proposamenerako 16 ekarpen egin genituen arlo desberdinetan; Hirigintza, udaltzaingoa, ingurumena, partaidetza, kirola, Hezkuntza, Euskara, Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuetan.*

*Ekarpen horien artean Asfaltatzeko hiru urteko plan bat egitea, zebra bideak konpontzeko partida igotzea, espaloiak zaintzeko partida igotzea, eskola bideak proiektua sortzea, parkeen mantenurako partida igotzea,*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

trafikoko sentsibilizazio kanpainak egitea, enpresetan berdintasuna bermatzeko laguntzak, eskola adinean dauden haurren ikas materiala erosteko laguntzak ... eta abar zeuden besteak beste.

Tamalez egindako ekarpenetatik hiru eta horietatik bi partzialki onartu zaizkigu eta beste 3 konpromiso bezala jartzea aurreikusi da, floreaga auzoko 3. igogailuaren lizitazioa, whatsapp edo app bat egitearen azterketa herritarrak udalari mantentze lanen berri emateko, eta atletismo pistaren kokapenaren azterketa eta obra gerakinetik ordainduz egitea. Pistaren azterketa 2023an gauzatu beharreko gai bat zen, baina dirudenez ez dira azterketa egiten hasi.

Oso garrantzitsua da herritarrengan bateratuta agertzea, baina gure ustez EAJ udal taldeak ez du aniztasuna izan proposamenak onartzerakoan, Hala ere, Azkoitia hobetzeko gure proposamenekin jarraituko dugu, eta espero dugu gainerako talde politikoek ere garrantzitsutzat hartzea.

Azkoitiko PSE-EE udal taldeak ez du nahi aurrekontuetan atzera pausorik egotea, beraz, 2024ko udal-aurrekontuaren proiektuan abstenitu egingo gara.”

Ondoren Jose Joakin Etxaniz jaunak hartu du hitza:

“Denon artean osatutako aurrekontuak direla esan dezakegu. Denok egin ditugu ekarpenak. Hauexek dira gehiengo oso bat ez izateak ekarri dizkigun abantailak. Noski ekarpen denak ez direla onartu, baina orokorrean egin den lanarekin, gu behintzat gustura gelditu gara.

UEMAko kide izango gara, itzulpenak eta etorkinei harrera egokia egingo diegularik. Ingurumenera partida berriak bideratu ditugu, eraikin publikoen teilatuetan plakak jartzeko, auto elektrikoentzat karga puntu gehiago jarriko dira, komunitate energetikoak sortzea bideratuko dugu, ibaia zaintzeko barandilla azpitan saretxo gehiago jarriko da eta herriko landalur publikoen azterketa egingo dugu. Gazteen ongizatea ere ez zaigu ahaztu, buru osasuna zaindu dezaten laguntzak izango ditugu eskuragarri, alde zaharra suspertzeko gune bat atontzea ere erabaki dugu, co-working eta ikasleek talde lanak burutzeko eremu bat aipatu direlarik. Dependentsia maila baxua duten herritarrentzat apartamentu babestuak herrira jaisteko proiektua burutzea izango dugu helburu bezala. Parte hartzeari ere bere garrantzia eman diogu bi partida berri sortuz, herri galdeketak bideratuz eta herria udaletxearekin harremanetan jartzeko bide berriak aztertuz.

Hauetaz gain Foreagarako 3. Igogailua lizitatu eta datorren urtean obra hastea aurreikusten da, ea hileta zibilak egitea ere ahalbidetzen dugun, atletismo pista eraikitzen hastea ere onartu dugu, skate parkea zeresanik ez, beraz, alderdikeriak alde batera utziz, herritarren lehentasunak kontutan hartuz, eskari asko asetzeko beta izango dugula dirudi. Agintaldi hau, beste urteekin alderatuz berezia izango da, udal gobernua soilik erabakitako aurrekontuak ez baitira izango, oposizioko bi alderdi bozkatuenetako batekin adostu behar baititu proposamen denak, gure ustez, dudarik gabe, herritarraren mesederako. Egoera honek, denoi, lan gehiago egitea dakarkigu, ongi etorria izan dadila, horrek ematen dio hein handi batean zentzua gure lanari, orain gure lanak etekin gehiago lortzen du, herritar gehiagoren eskariak beteko direla jakiteak ematen digun asebetetzea, orain bezala, ez dugu urte askotan sentitu, beraz,





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*bai, lan askoko agintaldia dugu aurretik, eta lan horietako bat, onartutako partida denon jarraipena egitea izango da, alderdi denok markatu ditugun lehenetasunak errespetatu daitezzen.*

*Garbi dago elkarlanean zentratu behar dugula agintaldia, eta denon adostasuna lortzeko ahalegin berezia egin beharko dugula denok, ea benetan horrela den eta datozkigun erronkei erantzun egokia emateko kapaz garen.*

*Elkargunean, 2024era begira, aldaketa garrantzitsuak datozkigu. Mas quatorekin dugun kontratuari bukaera emango diogu, gaur egungoa ezin baita gehiago luzatu. 2025era begira, kontratu berria nola bideratu, izango da erronka nagusia. Oraingoari aldaketak egin, eta berdintsu jarraitu, o dena publiko egin, o kudeaketa/antolakuntza soilik, ... Azterketa sakona egitea tokatzen da eta herrira begira egokiena aukeratzea. Aukera sorta honek, alderdi bakoitzari bere ekarpena egiteko ateak irekiko dizkio, eta udal gobernua, oposizioaren proposamenak benetan kontuan hartzera eramango du, honek, herrira begira, zalantzarik gabe, onurak ekarriko dituelarik.*

*Baina denak ezin du elkarlana, adostasuna eta onura izan. Eta horren adibiderik garbiena Azkoitia Lantzen dugu. Nahi edo ez, guztion enpresa dugun honek, asko baldintzatzen digu herritar denon eskarien asebetetzea. Azken urtean 2 milioi eurotik gora jarri ditugu, sozietate anonimo honen bermerako eta sortu zen garai haietan hartu ziren konpromisoak aurre egiteko. Miloi ta erdi Txalon errekatik San Martin aldera joango den bidea egiteko, eta 2022. urte bukaeran 750.000€ enpresa honen arazoak konpontzeko. Diru kantitate handia da, pentsa diru horrekin zenbat eskariri egin dezakegun aurre. Bi mailegu eskatu ditugu azken urteetan Floreagako igogailuak eta igerileku berria egin ahal izateko, baina aurretik aipatutako diru horiek poltsa beretik ateratzen direnez, asko konplikatzen dute, batik bat igerileku berria eraikitzea. Gai honetan asko luzatu gaitezke, baina hortxe utziko dugu.*

*Aurrekontuetan zentratuz, aurretik esanda bezala, Azkoitia Lantzeneko gaia ez ezik, beste arlo askotan zantzu positiboak ikusten ditugu eta gure bozkak ezin du inondik inora ezezkoa izan. Hauteskundeetan denon arteko lankidetzak defendatu genuen behin eta berriz, badakizue gure esku dauden arlo denetan duzuela besteok tokia, dagoeneko egoitzako bai langile, bai egoiliar eta senideekin egiten ditugun bileretara alderdi denok etortzen zarete, parte hartze eta ingurumen mahaira ere gonbidatuta zaudete noski.*

*Eta bukatzeko, aurrekontu hauei, alderdi positibo gehiago dutela azpimarratuz berriro, ez diogu oztoporik jarriko eta abstenitu egingo gara, hori bai jarritako partida denak erabiltzeko jarri direla gogoratuz, baita oposizioan dauden alderdiak jarritakoak ere.”*

Azkenik, Asier Altuna jaunak honako hau adierazi nahi izan du:

*“Agintaldia hasi zenetik 6 hilabete betetzera doaz eta ekainean esan genuen modura, baldintza ezin hobekak daude beste Azkoitia batekin sinesten dugunontzako. 2024ko aurrekontuak, agintaldiko lehenengoak izanda, Udala*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*gobernuarentzako azterketa bat bezala ikusten ditugu eta motzak geratzen dira. Gure iritziz, agerian geratzen da Azkoitiko PNVk etorkizuneko proiekturik ez duela eta 2006ko proiektua gauzatzeko tematzen ari dela.*

**AURREKONTU HAUEK EZ DIRA GURE AURREKONTUAK.**

*Baina, zenbait proposamen luzatu ditugu hobetzeko asmoarekin, izan bakarrik edota beste udal ordezkariekin, elkarrekin. Batzuk onartuak izan dira, beste batzuk ordea, alboratuta.*

*Landa lur publikoa aztertzea, Gazteen osasun mentalaren zaintza, Alde zaharraren biziberritzerako proposamena + co-working gunea, altzibarko espaloia estaltzea, ... Udalaren organo ezberdinetara bideratutako proposamenak dira eta herritarren eguneroko bizitza hobetzea dute helburu.*

*Kanpainan esan genuen eta gaur berrezten dugu, Alde Zaharraren egoerarekin kezkatuta gaude. Herriaren sustapen ekonomiko-soziala bideratzea behar beharrezkoa dela uste dugu eta alde zaharraren biziberritzea premiazkoa ikusten dugu. Erronka potoloa da eta guztion artean egin beharrezkoa dela deritzogu. Herri osoak burutu beharrezko hausnarketa kolektibo baten beharra egiteko dago, eta horretarako egokia ikusten dugu herritarrei baliabideak eskaintzea, prozesu honetan parte aktibo izan daitezen. 200.000€ ditugu biziberritze plana egiteko eta zain egon gabe, hainbat ekimen burutzeko. Ikasteko gelak eta Coworkinerako guneak hasierako ekintzak besterik ez izatea espero dugu.*

*Euskarari dagokionez, hausnarketa sakon baten beharrez gaudela deritzogu. Euskararen erabilera jaitzi egin da gure herrian eta arnasmune bezala zen herria, egun ez da hain arnasmune. Beharrezkoa da, politika aktiboak sustatzea. Zentzu horretan, UEMAn sartzeak, beste bultzada bat emateko balio behar du. Euskal hiztun ez direnentzat ere atrakzio kultural zein turistikoa izan daiteke, euskararen mundu zabalera erakarriz. Zentzu horretan, penaz hartzen dugu, Azkoitiko PSE-k euskararen inguruan hartu duen posizioa. Euskararen aurkako eraso juridikoaren aurrean, Eudelen mozioaren aurka bozkatu izana edota UEMA-ren sartzearen aurka bozkaturik. Euskarak nekez konpetitu dezake, gaztelerarekin esparru; soziologiko, instituzional zein ekonomiko-finantziarioan. Horren aurrean, euskarari oztupoak ez jartzea, gutxiengoa izan beharko litzatekeela uste dugu. Gure aldetik, PSE-ri eskua luzatu nahi diogu, Euskararen mundu aberatsa gizateriaren altxor bezala zaintzera eta babestera animatuz.*

*Alkatetzarako partida aurten %100ko igoera bat aurreikusten da eta ulergaitza iruditzen zaigu. Parte hartzearen aitzakipean alkatetzaren esku 100.000€ ustea ez dugu ondo ikusten. Azken 2 legealditan izandako pertsonalismoa errepikatze arriskua ikusten dugu eta gai honen inguruan, adi egongo garela adierazi nahi diogu alkateari.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Azkenengo legealdietan hainbatetan eskatu deu hileta zibilak egiteko eskubidea herritarren eskura izan behar dela ahalik eta azkarren. Sustapen ekonomikoaren atalean aipatu da baina aurrekontuetan ez da jaso izan. Zentzu horretan, ordenantzak erregistratu ditugu eta hurrengo hilabeteetan ordenantzen inguruko eztabaida gauzatu, onartu eta zerbitzu hau martxan izatea espero dugu. Hileta zibilak behin ordenatuta, hurrengo egunetik gune fisikoak eskuragarri izan zitezten, diru partida txiki bat ipintzea proposatu dugu, behin -behinekoz bada ere, espazio batzuk prest izan zitezten. **EZ DUZUE KONTUAN HARTU GURE ESKAERA.** Aurreko udal bilkuran esan genuen eta berresten dugu, EAJrentzat hileta zibilak ez dira lehentasun bat. **EH BILDUTIK, ESKUBIDE HAU BERMATUA IZAN DADIN, JARRAIPENA EGINGO DIOGU.***

***Berdintasunari dagokionez,** ekimen ugari egiten dira eta ez dugu gaizki ikusten baina bestelako luzeko begirada bat eman behar zaiola uste dugu. Zehar-lerroko gaia da, gizarte osoari eragiten diguna eta zentzu horretan, jarraitzen dugu pentsatzen, **Berdintasun teknikariak %100 soldatapean** egon behar duela, hausnarketa estrategikoa egin eta urrats iraunkorrak emateko.*

*Ez dugu ahaztu nahi, zaharren egoitzara igotzeko igogailuaren proiektuarekin. Egoitza herrira jaisteko konpromisoa irmoa dugu eta ez diogu inolako zentzurik ikusten, 600.000€ko gastua egitea, epe ertain-luzera utzi nahi den eraikin batean.*

*Bukatzeko, berretsi nahi dugu gure eskua luzatua daukagula herri bezala etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egiteko, ez ordea iraganeko proiektu zaharkituak bultzatzeko. Horrenbestez eta herria blokeatzeko inongo borondaterik ez daukagunez, Azkoitia Lantzeneko aurrekontuetan abstenitu ginen eta 2024ko aurrekontu hauetan ere **ABSTENITU EGINGO GARA.***

***Ez dugu aipatu gabe utzi nahi, azken hilabete eta erdian udaletxeko langile guztiek egindako lana, bereziki kontuhartzailtza, edota idazkaritza. Guztioi gure esker ona."***

Alkate andreak hitza hartu eta Udal bozeramaile guztiei erantzungo diela adierazi du. Dena den, erantzunekin hasi aurretik nabarmendu nahi izan du, Jose Joakin jaunak adierazi duen moduan, agintaldi hau berezia izango dela Udal gobernuak beste udal alderdiekin akordioak hartzera derrigortuta dagoelako edozein gaia aurrera ateratzeko.

Hasteko, Asier Altuna jaunari aurpegiratu dio EAJ-k egindako aurrekontu proposamena 2006an aurkeztutako proiektuaren luzapena dela esatea, ikusita EH Bilduk ez duela aldaketa nabarmenik planteatu beraiek proposatutakoari. Bestalde, alderdi bakoitzak egin dituen ekarpenak eta bakoitzaren ordezkariak kontuan hartuta, beraiei proposamenen ehuneko



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

handiena onartu dietela argitu dio, hortaz, harritu zaizkio EH Bilduk egindako deklarazio batzuk.

Aurrekoa gorabehera nabarmendu die beste udal alderdiko ordezkariak ezinezkoa dela guztien ekarpenak onartzea, kasu batzuetan, ekonomikoki ezinezkoa delako eta beste kasu batzuetan partida berri bat jartzea beharrezkoa ez delako, adibidez, traktoreen ikuskaritza mekanikoak egiteko.

Amaitzeko, alderdi guztien gustuko Udal aurrekontu proposamen bat sortzen saiatu direla adierazi du.

Jose Joaki Etxaniz jaunari komentatu dio, bere ustez, Azkoitia Baiko kideek dagokien ordezkariak hartu beharko luketela Azkoitia Lantzenen garai batean sortutako arazoei konponbide bat topatu behar zaielako.

Jose Joakin Etxaniz jaunak bi zehaztasun egin nahi izan dizkio Alkateak komentatutakoari honako hau esanez:

Adierazi dio beraiek proposatutako sarrera eta gastuen partidak orekatuta aurkeztu zirela eta Azkoitian Lantzenen jarduerari buruz uste du ekintza batzuk herritarrei horren berri eman gabe egiten direla eta horrekin ez dator bat.

Alkate andreak honako erantzun hauek eman dizkio:

Azkoitia Lantzen: Orokortasunean, aspalditik datozen arazoak konpontzen saiatzen ari direla. Ekintzei dagokienez, ahalik eta gardentasun handienarekin onartzen eta burutzen direla aitortu dio.

Aurkeztutako sarrera eta gastuen arteko orekari buruz, aitortu dio orekatuta aurkeztu zirela. Hala ere, nabardura txiki bat egin dio eta eskertu dio Azkoitia Baik egindako negoziaketa esfortzua.

Asier Altuna jaunak hitza eskatu du eta erantzun dio esanez berak berresten duela lehen esandakoa, hau da; onartzera ekarri den aurrekontu proposamen hau ez dela EH Bildurena. Bestalde nabarmendu nahi izan dio 2006ko proiektuaren luzapena dela oraindik 2006. urtean hartutako erabaki batzuk gauzatzen ari direlako, hala nola, Txalon Errekako Viala.

Azkoitia Lantzen buruz honako hau adierazi du Asier Altuna jaunak: EH Bilduk Alkatetzan egon zen bitartean entitate publikoaren azterketa sakona egin zen hartutako konpromisoen nondik norakoak zehazteko eta konponbideak topatzen aldera. Beste arrazoi bat esateko aurkezten den aurrekontu proposamena 2006. urteko proiektuaren luzapen bat dela.

Beste aurrekontu proposamena ez aurkezteari buruz komentatu dio taldekide berri askorekin sortu dela Azkoitiko EH Bildu udal taldea, hortaz,



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

gutxieneko denbora behar dute Udalaren funtzionamenduari egokitzeko. Horrenbestez, EH BILDUK proposatutako partidak EAJ-k bidalitako aurrekontu proposamenean oinarritu dira bere moldaketak jakinaraziz.

Alkate andreak Asier Altuna jaunak esandakoari nabardura batzuk gehitu dizkio eta irizpena irakurtzera pasatu da bozkatzea baimendu aurretik.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu eta Juan Bautista Mendizabal Juaristi.

**Abstentzioak:** Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre, Janire Astigarraga Larrañaga eta Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak 2024 ekitaldirako Azkoitiko Udala, San Jose Egoitza, Zubiaurre-Elkargune Institutua, Azkoitia Lantzen, S.A.-ren aurrekontuak eta Aurrekontu Kontsolidatua hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

**2.- 2024 EKITALDIRAKO AZKOITIKO UDALEKO LANGILEEN PLANTILLAREN ETA LANPOSTU ZERRENDAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Itziar Larrañagak Arrizabalaga andreak aretoa utzi du.

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IRIZPENA**

**GAIA: 2024. ekitaldiko Lanpostu Zerrendaren onarpena**



## AURREKARIAK

I.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Toki Araubideari buruzko indarrean dauden Lege Xedapenak jasotzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126. artikulua adierazitakoaren arabera, Toki Korporazio bakoitzak urtero onartu behar ditu Pertsonalaren Plantila eta Lanpostuen Zerrenda, Udal Aurrekontuekin batera. Hori horrela eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua emandako eskumenegatik, Azkoitiko Udalbatza Osoak, 2022ko abenduaren 22an egindako ez ohiko bilkuran, 2023. ekitaldiko Azkoitiko Udal langileen Lanpostu Zerrenda eta Udal plantila hasieraz onartu zituen, 2023ko urtarrilaren 17ko GAO n argitaratuz, edozeinek dagozkion erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Legeak aurreikusitako epea igaro ondoren inolako alegaziorik aurkeztu gabe, udal lanpostu zerrenda eta plantila behin betiko onartuta gelditu ziren.

II.- 2022ko abenduaren 29an Udal aparejadorearen plaza hornitzen zuen langile publikoak erretiroa hartu zuen. Adieraztekoa da plaza hori langile laboral batengatik hornituta zegoela eta aplikagarria den arau xedapenen arabera, printzipioz, funtzionarioentzat gordetako lanpostua zela.

III.- 2023ko martxoaren 29an egindako Ohiko Bilkuran, Azkoitiko Udalbatzak, 2023ko Lanpostu Zerrendaren lehenengo aldaketa onartu zuen. Aipatutako aldaketan Kontu-hartzaitzako Goi Mailako Teknikari lanpostua eratzea onartu zen, derrigorrezkoa den jendaurreko epea igaro ostean behin betikoz onartu zena. Hori dela eta 2024. ekitaldiko Lanpostu Zerrendan xedatu beharko litzateke.

IV.- 2023ko azaroaren 22an, 6.173 sarrera zenbakia zuen idatziaren bidez, behin - behineko langile bezala izendatuta zegoen karrerako udal funtzionarioa bere jatorrizko plazara bueltatzea eskatu zuen.

Arestiko guztiagatik eta aintzat hartuz 2024. ekitaldirako lanpostu zerrenda eta plantila onartu behar direla indarrean dagoen legediari egokitzeko, aurrekarien atalean xedatutako gorabeherak aztertuko dira.



## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kasu honetan honako hau izango litzateke legedi aplikagarria:

- Uztailaren 16ko **6/1989 Legea**, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, aurrerantzean **6/1989 Legea**.
- Urriaren 30eko **5/2015 Legegintzako Errege Dekretua**, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, aurrerantzean **5/2015 Legegintzako Errege Dekretua**.
- Abenduaren 1eko **11/2022 Legea**, Euskal Enplegu Publikoarena, aurrerantzean **11/2022 Legea**.

**LEHENENGOA.-** Atal honen bitartez Euskal Entitate Publikoen langileei aplikagarria zaien legedia aztertuko da baita udal lanpostu zerrendan eginbeharreko aldaketak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioen araubidea zehaztu zuen lehenengo araua 6/1989 Legea izan zen. Bertan funtzionarioak taldeetan antolatzen ziren enplegu publikoaren sarbidea eta barneko promozioak arautzeko asmoz. Aurrekoari gehitu behar zaio 6/1989 Legeak talde bakoitzari dagozkion funtzioak zehaztu zituela, bai eginkizun administratiboak bai lanbide jakin bateko funtzio espezifikoak ere, lanpostu zerrenden bitartez. Hori dela eta lanpostu zerrendak entitate publikoen pertsonalaren araubidea zehazteko dokumentuetan bihurtu ziren.

Urteak igaro ahala otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak antolatzen duena, onartu egin zen. Arau xedapen berritzaile honek "aukera" terminoa sartu zuen kidego berezietara sartzeko titulazioa izendatzeko. Kidego horien funtzioak kasuan kasuko lanpostu zerrendetan zehazten diren aukerek edo titulazioek gaitzen duten lanbideari dagozkionak izango lirateke. Aldi berean adierazitako arau xedapenak talde berezien barnean eskala kontzeptua garatu zuen berebiziko titulazioa eskatzen ez duten agrupazio profesionaletan.

Puntu honetara ailegatuta zehaztu behar da Euskal Autonomia Erkidegoak ez duela eskumen osoa langile publikoen araubide juridikoa xedatzeko, hortaz, Estatuko Araubidean zehaztutakoa ere aintzat izan beharko da. Zentzu horretan aipatzekoa da indarrean dagoen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Legearen testu bategina onartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria dela. Horrenbestez Legegintzako Errege Dekretu honen bitartez txertatutako berrikuntza guztiak aintzat hartu beharko dira ere, besteak beste: talde berezi eta orokorren arteko banaketa, taldeen antolamendua eskala desberdinetan banatzea, etab.

Aipatutakoari gehitu behar zaio 2021eko azaroaren 22ko Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoena eta eskalena, argitaratu zela. 7/2021 arau xedapenaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten funtzionarioen taldeen eta eskalen araubidea eguneratzea da. Horregatik eta 7/2021 Legeko artikulua berritzaileak aplikatzeko, abenduaren 1eko **11/2022 Legea**, Euskal Enplegu Publikoarena, onartu egin zen.

Esatekoa da 11/2022 Legearen 56. artikulua ebatzen duela funtzionarioak sailkatzeko azaroaren 11ko 7/2021 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta Eskalei buruzkoa, zehaztutako kidegoak, eskalak, espezialitateak eta laguntzeko langileen talde profesionalak aintzat hartuko direla. Dena den azpimarratu behar da oraindik ez dela argitu nola burutu administrazio publiko guztien lanpostu zerrenden egokitzapena, hortaz, administrazio publikoek ezingo dute egokitzapen prozesu horiek abiarazi Eusko Jaurlaritzak beharrezkoa diren argibideak publikatu arte.

Aurrekoa gorabehera badaude 11/2022 Legean aplikatu daitezkeen eguneraketa batzuk. Bederatzigarren Xedapen Iragankorrek esaterako honako hau dio:

*“1. Aldi baterako, lege honen 56. artikuluan aipatutako unibertsitate titulu berrien ezarpena orokortzen den arte, honako hauek izango direla euskal administrazio publikoetako kidego orokorretara eta berezietara sartzeko betekizunak:*

- a. A sailkapen-taldeko A1 azpitaldeko kidegoetarako, titulu hauek: doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, edo enplegu publikora iristeko ondorioetarako gradu baliokidea.*





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

b. A sailkapen-taldeko A2 azpitaldeko kidegoetarako, titulu hauek: ingeniari tekniko, unibertsitate-diplomadun, arkitekto tekniko, hirugarren gradu lanbide-heziketa, doktore,

*lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, edo enplegu publikora iristeko ondorioetarako gradu baliokidea.*

2. Unibertsitate-titulu berriak, eman ahala, enplegu publikora iristeko betekizunetan sartuko dira titulazio akademikoen baliokidetza deklaratzeko lege honen hemeretzigarren xedapen gehigarrian aurreikusten den katalogoan ezarritako baldintzetan.”

Horrenbestez lanpostu bakoitzaren titulazioen berrikuspena derrigorrezkoa dela aitortu daiteke.

**BIGARRENA.-** Puntu honetan Udal Aparejadore plazaren egoerari erreparatuko zaio.

Plaza honen berezitasuna ulertzeko 6/1989 Legearen ebazpenak aintzat hartu behar dira, gaur egun indargabetu dagoena 11/2022 Legearen eraginez.

6/1989 Legeko 19. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikoetako lanpostuak, orokorrean, funtzionarioz hornituta egon behar dira. Hala ere nabarmentzekoa da 19.2 artikuluan salbuespen batzuk aurreikusten zirela lanpostuak lan kontratupeko langileen bitartez hornitzeko, baina Udal Aparejadorearen plazak ez zituen salbuespen horietan sartzeko baldintzak betetzen. Hori dela eta 2005eko urriaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak, idatzi bat igorri zion Azkoitiko Udalari non beste batzuen artean, honako hau zioen:

Azaldutakoagatik Udal Idazkariak Eusko Jaurlaritzako testuan adierazitako lanpostu guztiak desagertzeko lanpostu bezala sailkatu zituen, baina plaza horiek hornitzen zituzten langile publikoek lanpostu horietan jarraituko lukete 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorraren arabera.

Jakinda Udal Aparejadoreak erretiroa hartu duela eta ikusita, alde batetik; lanpostu zerrendan dagoen sailkapenaren arabera “desagertzeko” dagoela, ez da inolako eragozpenik ikusten aipatutakoa lanpostu zerrendatik ezabatzeko.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**HIRUGARRENA.-** Kasu honetan behin behineko langile bezala izendatuta dagoen karrerako funtzionario jatorrizko plazara bueltatzeko aukera aztertu egingo da. Horretarako 5/2015 Legegintza Errege Dekretuaren eta 11/2022 Legean xedatutako aintzat hartu beharko da.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 87. artikulua honela dio:

**“Artículo 87. Servicios Especiales.**

*1.- Los funcionarios de carrera serán declarados en situación de servicios especiales: ....*

*i) Cuando sean designados como personal eventual por ocupar puestos de trabajo con funciones expresamente calificadas como de confianza o asesoramiento político y no opten por permanecer en la situación de servicio activo. .... 2.- Quienes se encuentren en situación de servicios especiales percibirán retribuciones del puesto o cargo que desempeñen y no las que les correspondan como funcionarios de carrera, sin perjuicio del derecho a percibir los trienios que tengan reconocidos en cada momento. El tiempo que permanezcan en tal situación se les computará a efectos de ascensos, reconocimiento de trienios, promoción interna y derechos en el régimen de Seguridad Social que les sea de aplicación.... 3.- Quienes se encuentren en situación de servicios especiales tendrán derecho, al menos, a reingresar al servicio activo en la misma localidad, en las condiciones y con las retribuciones correspondientes a la categoría, nivel o escalón de la carrera consolidados, de acuerdo con el sistema de carrera administrativa vigente en la Administración Pública a la que pertenezcan. Tendrán, asimismo, los derechos que cada Administración Pública pueda establecer en función del cargo que haya originado el pase a la mencionada situación.”*

Bestalde, 11/2022 Enplegu Publikoaren 30. eta 138. artikuluetan adierazitakoa aplikagarria izango da ere:

**“ 30. artikulua.** Behin-behineko langileak.

1.– Hauek dira behin-behineko langile: izendapen bati esker eta behin betiko izaerarik gabe, berariaz konfiantzakotzat edo aholkularitza berezikotzat kalifikatutako funtzioak



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

besterik betetzen ez dutenak, eta ordainketa jasotzen dutenak xede horretarako aurrekontu-kredituetatik.

2.– Behin-behineko langileek ezin izango dute euskal administrazio publikoen barruan bete zuzendaritza-funtziorik, funtzio exekutiborik edo funtzionarioei edo langile lan-kontratudunei gordetakorik.

3.– Postu hauek betetzen dituzten pertsonak bakarrik izendatu ahalko dituzte behin-behineko langileak: lehendakari, diputatu nagusi, alkate, lehendakariorde, sailburu eta foru-diputatu, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektore. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundietako eta udaletako gobernu organoek zehatuko dituzte, kasu bakoitzean, behin-behineko langileen gehieneko kopurua eta haien adskripzio organikoa; zehaztu ere, beren araudian xedatutakoaren arabera eta gastu publikoaren ekonomia-printzipioa begiratuta.

4.– *Behin-behineko langileen lanpostuak eta ordainsariak lanpostu-zerrendetan edo antzeko antolamendu-tresnetan jasoko dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.*

5.– *Behin-behineko langileak izendatzea eta lanpostutik kentzea libreak izango dira. Behin-behineko langileak lanpostua utzi beharko du, nolana den ere, konfiantzako edo aholkularitzako funtzioa nori ematen dion, agintari horrek bere kargua uztean.*

6.– *Behin-behineko langile izateak ez du merezimendurik ekarriko enplegu publikora iristeko, ez eta barne-sustapenerako ere.*

7.– *Behin-behineko langileei, beren izaeraren ezaugarriak aintzat hartuta egoki denean, karrerako funtzionarioen araubide orokorra aplikatuko zaie.”*

“138. artikulua.- Zerbitzu bereziak.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.- Karrerako funtzionarioak zerbitzu berezietan daudela deklaratu da honako egoera hauetako bat gertatzen bada: ...

l) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza politikokotzat berariaz kalifikatutako funtzioak dituzten lanpostuak betetzen dituztela eta, behin-behineko langile izendatzen dituztenean. ....

2.- Zerbitzu berezietan dauden karrerako funtzionarioek betetzen duten lanpostuari edo karguari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte, eta ez karrerako funtzionario modura betetzen duten lanpostuari dagozkionak, hargatik eragotzi gabe funtzionario modura unean-unean aitortuta dituzten hiru urtekoak jasotzeko eskubidea.

3.- Funtzionarioek zerbitzuak ematen dizkieten administrazioak ordainduko ditu zerbitzu berezietan dauden langileen hiru urteko dagozkien ordainsariak. Salbuespen modura, langileek aitortuta dauzkaten hiru urtekoengatik ordainsariak lege ezin direnean dagozkion aurrekontuen kontura jaso, zerbitzu berezien egoera deklaratu duen administrazio edo entitate publikoak ordaindu beharko ditu.

4.- Zerbitzu berezien egoeran ematen den denbora aintzat hartuko da funtzionarioen karrera profesionalaren ondorioetarako, hiru urtekoak aitortzeko eta barne sustapenerako, baita aplikatu behar zaien Gizarte Segurantzako araubideko eskubideen ondorioetarako ere. ...

5.- Zerbitzu berezietan dauden karrerako funtzionarioek eskubidea izango dute egoera horretan izan aurretik edo egoera horretan daudela lehiaketa bidez lortutako lanpostuaren erreserbarako. Administrazioak bermatuko du funtzionarioak zerbitzu aktibora itzultzea, finkatuta dituzten eskubideen arabera eta dagokien administrazio publikoan indarrean den administrazio-karrerako sistemarekin bat etorritik.

6.- Karrerako funtzionarioek, kargua uzten dutenetik aurrera, hogeita hamar egun natural izango dituzte zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko, eta, hala egin ezean, *norberaren interesगतिको borondatezko eszedentzian deklaratu dituzte, ofizioz, eta egoera horretan iraun beharko dute gutxienez bi urte jarraian, zerbitzu aktibora*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*itzultzeko eskaera egiteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. 7.– Funtzionarioek zerbitzu berezien egoeran jarraituko dute, egoera horretara igarotzea eragin zuen baldintza bertan behera gelditzen denetik zerbitzu aktibora itzultzen diren arte.”*

Azaldutako aintzat hartuta eta jakinda interesdunak Azkoitiko Udaleko plaza baten jabetza duela, ez zaio eragozpenik ikusten jarduneko zerbitzura bueltatzeko.

Arestikoagatik, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Antolakuntza Batzorde Informatiboak,

## IRIZPENA

**LEHENENGOA.-** Azkoitiko udaleko 2024ko Lanpostuen Zerrenda eta plantila onartzea, irizpen honekin batera bidaltzen diren eranskinen arabera.

**BIGARRENA.-** Lan postuen zerrenda informazio publikoan jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean, 15 egun laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuaren 169. artikulua xedaturikoaren arabera, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Inolako erreklamazio edo iradokizunik ez balitz aurkeztuko, behin betiko onartutzat hartzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau gardentasun atarian argitaratzea, eta udaleko langileen ordezkariari jakinaraztea.

Antolakuntza Batzordeak, 2023ko abenduaren 11n egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Juan Bautista Mendizabal, Iraitz Otaño, Asier Altuna, Jose Joakin Etxaniz, Janire Astigarraga eta Janire Igoa.”

Alkate andreak adierazi du, urtero bezala, Azkoitiko Udalari dagokiola langileen plantilla eta Lanpostu Zerrenda onartzea Udal Aurrekontuarekin batera. Aurrekoagatik eta kontuan izanda urtean zehar egon diren aldaketak, aipatutakoak eguneratu behar dira. Adierazitakoa gorabehera irizpena irakurtzera pasatu da eta beste udal alderdietako kideei hitza eskaini die.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak adierazi du ez diola aparteko eragozpenik ikusten bertan proposatutakoari, hortaz, Azkoitia Bairen aldeko botoa iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre, Janire Astigarraga Larrañaga eta Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak 2024 ekitaldirako Azkoitiko Udaleko langileen Plantilla eta Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

**3.- 2023-2025 AZKOITIKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 20024KO AURREKONTURA EGOKITZEA.**

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

**ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA**

**AZKOITIKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2024KO AURREKONTURA EGOKITZEA**

**LEHENA.- AURREKARIAK**

2022ko abenduaren 22an Udal bilkura osoak, Azkoitiko Udalaren Diru-laguntzen plan estrategikoa 2023-2025 onartu zuen.

2023-2025 aldian egongo da indarrean, eta izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da. Ez du indar arautzailerik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ematen du, diru laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartuta daudela alde aurretik diru laguntzen plan estrategiko bat egitera.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Agindu hau betez 2023-2025 urtetarako plana onartu zen.

## **BIGARRENA.- 2024KO AURREKONTURA EGOKITZEA**

2024ko aurrekontuan, diru-laguntzei dagokionez, aldaketa batzuk onartu dira, besteak beste, 2023 urteari begira onartutako diru-laguntza batzuk ezeztatzen dira eta 2024ko urteari dagozkionak onartzen dira.

Ondorioz, onartutako aldaketak, Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusi behar dira eta 2023-2025 aldirako proposatutako Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa egokitu behar da, komenigarria delarik aldaketa hauek islatzea.

## **OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK**

### **1.- AZAROAREN 17KO 38/2003 DIRULAGUNTZEN LEGEA:**

Lege honen 8.1 artikulua agindua ematen du diru laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek onartu beharra daukatela beren diru-laguntzen plan estrategikoa, era honetara:

#### *Artículo 8 Principios generales*

*1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.*

*Las bases reguladoras de cada subvención harán referencia al Plan estratégico de subvenciones en el que se integran, señalando de qué modo contribuyen al logro de sus objetivos; en otro caso, deberá motivarse por qué es necesario establecer la nueva subvención, incluso aun no habiendo sido prevista en el Plan, y la forma en que afecta a su cumplimiento.*

*(...)”*

### **2.- IZAERA JURIDIKOA**

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa da izaera programatikoa duen kudeaketa-tresna bat, indar arautzailerik ez duena.

### **3.- ORGANO ESKUDUNA**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 8. artikulua zehazten du Udal korporazioen organoek diru-laguntzak onartu aurretik, plan estrategiko batean aurreikusi behar direla, non, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, epea, kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztu behar diren. Baina 38/2003 Lege Orokorra ez du zehazten zein organo izango den eskuduna plan estrategiko hori onartzeko edo aldatzeko eta ezta Lege hau garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuak ere.

7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 21.s) artikuluan zehazten du Alkateak eskumena izango duela *“Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia-erkidegoetakoak udalerriri esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak”*. Ondorioz, uler daiteke Alkatetza dela organo eskuduna eta horrela ulertu dute Udal batzuek.

Hala ere, orain artean Azkoitiko Udalean ondorioztatu da, organo eskuduna Udalbatzaren Osoko Bilkura dela eta horrela jardun du; izan ere, diru-laguntzen oinarri orokorrak eta espezifikoak Osoko bilkurak onartu behar ditu eta 38/2003 Legeko 17.2 artikulua xedapena jarraituz (... *Las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones*) ondorioztatu da Oinarri Orokorra eta espezifikoak onartu dituen organoak onartu behar duela diru-laguntzen plan estrategikoa, alegia, Udaleko Osoko Bilkurak.

Baina, egunerokotasunean, ikusi da diru-laguntzen plan estrategikoa ez dela plan finko bat, alegia, onartutako epealdian aldaketak izatea dela normalena.

Horregatik, Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkurak adostu zuen eskumena eskuordetzan ematea Alkateari, horrela ahalbidetzen duelako 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 22.4) artikuluan.

Eskuordetza horrek honako mugak errespetatu behar ditu:

- 2023-2025 urterako Diru-laguntzen plan estrategikoari eragingo dio soilik.
- Nahiz eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoak izaera programatikoa izan eta ez duen indar arautzailerik, Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua errespetatu behar du.

#### 4.- DELEGAZIOA

Ildo beretik, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, bere 9. artikuluan, besteak beste, xedatzen du administrazio bereko organoek beste organo batzuei delegatu diezazkietela beren eskumenak.

Prozedurari dagokionez, artikulua bereko 3. atalean zehazten da eskumen-delegatzeak





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

eta errebokazioak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla. Gainera, 4. atala jarraituz, ebazpenak delegazioz ematen direnenean, espresuki adierazi behar da hala eman direla, eta organo delegatzaileak emandakotzat joko dira.

## 5.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ARGITARATZEA ETA JENDAURREAN JARTZEA

Gai honetan Euskadiko Auzitegi Nagusiak 2011ko ekainaren 6an emandako Sententzia aipatu behar da(rec. 83/2010):

*(...) En todo caso, entiende la Sala que la observancia de un requisito como el del referido artículo 8.1 a nivel de " Principios generales", (según el que "Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria"), no exige necesariamente una formalización o instrumentalización externa predeterminada, que imponga en todo caso, y hasta en las Administraciones públicas más modestas, un elemento tan escasamente definible como el denominado "plan estratégico", pues sabido es que los planes, al igual que los programas y directrices de gobierno, no son disposiciones reglamentarias ni tan siquiera de carácter orgánico, ni normas jurídicas objetivas, sino simples estudios y materiales documentales con propuestas o enunciaciones de bases y medios para lograr determinados fines y políticas públicas. Su mención en el ordenamiento jurídico es solo tangencial y no sistemática, como corresponde a su naturaleza esencialmente preprocedimental, y solo se materializan como tales disposiciones jurídico-administrativas en la medida en que sea preciso para su imperatividad y eficacia ad extra."*

Horrenbestez, organo eskudunak onartu ondoren, plan estrategikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, jende guztiak horren berri izan dezan. Ondorioz, ez dago Azkoitiko Udala behartuta jendaurrean jartzera epe jakin batean behin betiko onartu aurretik.

Beraz, Antolakuntza batzordeak, 2023ko abenduaren 11n eginiko bileran honako **IRIZPENA** proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

**LEHENA.-** 2023-2025 Azkoitiko Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoa 2024ko aurrekontura egokitzea onartzea, honela geratuko delarik testua:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

OGASUNA, LANGILEAK ETA BARNE ANTOLAKETA ALORREKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Azkoitiko lixibiatuen tratamendua burutzeko diru laguntza.	Hondakin-uren tratamendua prozesu fisiko-kimiko eta biologikoen bidez ur horiek dituzten kutsatzaile organiko zein inorganiko gehien ezabapena.	Tratamendu honen bidez ibai eta erreketara ur garbia isurtzea ahalbidetzea lortu nahi da, hondakin-ur zikinak efluente garbi bat bihurtzen baititu.	95.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.
Alderdi Politikoen diru laguntzak.	Alderdi Politikoen euren jarduna garatu ahal izatea	Azkoitiko Udalean ordezkariak duten alderdi politikoen lotura ekonomiko gabe, euren jarduna garatu ahal izatea.	63.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.
Eudeli diru laguntza.	Udal autonomia bultzatu eta defendatzea	Euskadiko Udalen kohesiorako koordinatzea eta dinamizatzea, esperientziak trukatzeko, modernizazioa ahalbidetuko duten praktika onak hedatzeko eta euren eragina sendotzeko.	3.100,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.
UEMA diru ekarpena	Euskara hauspatzea Udalerri euskaldunak indartzuz	Udalerri euskaldunen mankomunitatearen parte izanik, arnaguneak indartu eta euskarak beharreko dituen kabiak mantentzea.	16.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

<b>KIROL ETA FESTA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.</b>					
<b>DIRU LAGUNTZA LERROA</b>	<b>HELBURUAK</b>	<b>LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK</b>	<b>URTEKO KOSTOA</b>	<b>FINANTZIAZIOA</b>	<b>ESLEIPEN PROZEDURA</b>
Azkoitiko Udalerrian FESTAK sustatzeko laguntzak	Azkoitiko auzo elkartea eta norbanakoak, festak antolatzeke modua izatea.	Auzoetan, bertako bizilagunen partaidetzarekin festak antolatu	17.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
TATA DANBORRADA ELKARTEAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Helduen danborrada antolatzea.	Azkoitiko helduek danborradan parte hartzeko aukera izatea, herrian errotuta dagoen ohiturari jarraituz	10.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
TATA DANBORRADA ELKARTEA (umeak) egitasmoa garatzeko dirulaguntza	Umeen danborrada antolatzea.	Azkoitiko umeen danborradan parte hartzeko aukera izatea, herrian errotuta dagoen ohiturari jarraituz	8.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
AEKASP errege kabalgata egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Erregeen kabalgata antolatzea.	Urtarrilaren 5ean herriko haur eta nerabeei kabalgataren ikuskizuna ilusioz bizitzea	3000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
AEKASP Aste Santuetako egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Ostiral Santuko prozesioak eta jarraitzea.	Mendeetako usadioari helduz, Aste Santutako prozesioak antolatzea, arratsalde eta gauean. Turismo eta kultur arloan indar handia hartzen joan den ekintza da, kanpotar asko erakartzen dituelarik gure herrira.	7.350,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
URRETEGIKO FESTA BATZORDEAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza	Azkoitiko Urrategi festak auzunean antolatzea.	Azkoitiko herriak, Urrategiko Amaren egunean, bertako festak egoki batean antolatuta ikustea.	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESKOLA KIROLA egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko ikastetxeetan kirol ezberdinak sustatu eta garatu	Azkoitiko haur eta gazteak, ikastetxeetan kirol ezberdinak, modu egoki batean, ikasi eta praktikatzea.	25.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerrian KIROL ERAKUNDEEI dirilaguntzak	Herriko taldeek kirol ekintzak antolatzea eta modua izatea.	Azkoitiarrek herrian kirol ekintza edo lehiaketa ezberdinetan parte hartu edo ikusteko aukera izatea	50.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
ANAITASUNA MB dirulaguntza	Azkoitian Mendizaletasuna bultzatzea	Herriko ikastetxeekin eta orohar herritarrekin urtean zehar ekintzak burutzea mendizaletasuna bultzatzeko	8.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
TTIPI TTAPA dirulaguntza	Osasungarriak diren ohiturak lantzea	Helduentzako osasungarriak diren ohiturak lantzea herriko bazterretan ibilbideak burutz lagungiro onean	6.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANAITASUNA FUTBOL TALDEA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian futbolaren sustatu eta garatu	Herriko ikastetxeekin lankidetzan eskola kiroleko futbola aurrera eramango da, herriko futbolaren plangintzaren programa prestatuko da eta Txerloia eta San Juan futbol zelaien kudeaketa aurrera eramango da.	54.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
OTEIZA PILOA TALDEA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian pilota sustatu eta garatu	Herriko ikastetxeekin lankidetzan eskola kiroleko pilota aurrera eramango da, herriko pilotaren plangintzaren programa prestatuko da,	12.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

		Azkoitiarrek aukeran izan ditzaten pilota jarduera guztiak.			
IRAURGI SASKI BALOI TALDEA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian saski baloia sustatu eta garatu	Herriko ikastetxeekin lankidetzan eskola kiroleko saski baloia aurrera eramango da eta herriko saski baloiaren plangintzaren programa prestatuko da.	40.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MARATOI ERDIKO BATZORDEAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian korrikaroko zaletasuna sustatu.	Urola bailararen promozioa egitea kirol eta turismo arloan. Baita ere Diego Garcia korrikalariaren oroimena mantendu.	7.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ZUBIAURRE IGERI Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian igeriketa sustatu eta Garatu.	Herriko igeriketa plangintzaren programa prestatuko du. Azkoitiarrek aukeran izango dituzten igeriketa jarduera guztiak jasoko dituena: lehiaketak edo sustapena, ikastetxe edo klubeko esparruan.	11.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
TXERLOI TENIS KLUBAREN egitasmoa garatzeko dirulaguntza	Azkoitian tenis zaletasuna sustatu	Herriko tenis plangintzaren programa prestatuko du. Azkoitiarrek aukeran izango dituzten tenis jarduera guztiak jasoko dituena.	7.700,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANAITASUNA xake taldearen egitasmoa gartzeko dirulaguntza	Azkoitian Xake zaletasuna sustatu	Azkoitian Xake bultzatzeko egitasmoa prestatu du.	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

ELKARGUNE ZUBIAURRE Institutoari kirolaren dirulaguntza	Azkoitian kirola sustatzea	Azkoitian kirola sustatu eta praktikatzeko baliabide egokiak izatea	622.200,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANAITASUNA FUTBOL TALDEA Elkarteari zelaia mantentzea. egiteko dirulaguntza.	Txerloia Futbol Zelaia onean mantentzea.	Futbol partiduak belarrezko zelaian modu egokian jokatzeko aukerak izatea.	9.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
BIZKARGI MUSIKA ETA DANTZA eskola egitasmoa garatzeko dirulaguntza.	Musikaguneko ikastaro eta kontzertuak antolatzea.	Herritarrak txikitatik musika eta dantza ikasteko aukera izango dute. Herrian dauden Musika Banda, Abesbatza eta Dantza taldeari jarraipena ematen diote.	89.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MUSIKA BANDAREN egitasmoa garatzeko dirulaguntza.	Azkoitian Musika Banda izatea.	Musika zaletasuna duen edonork, musika arloan parte hartzeko elkartea herrian izatea eta herriko ekintza eta festetan Musika Banda horren partaidetza izatea	52.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MUSIKA BANDAREN FORMAZIOA garatzeko dirulaguntza.	Azkoitian Musika Banda izatea.	Musika Bandako partaideek formakuntza egoki bat jasotzea	2.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Azkoitiko Udalerrian MUSIKA ETAN ANTZERKI EKITALDIAK sustatzeko laguntzak	Herriko talde eta norbanakoen kultur ekintzak antolatzeko modua izatea.	Azkoitiarrek herrian kultur ekintza edo lehiaketa ezberdinetan parte hartu edo ikusteko aukera izatea.	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
IRAURGI ABESBATZA Elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	Azkoitian Abesbatza taldea izatea	Kantu zaletasuna duen edonork, kantu arloan parte hartzeko elkartea herrian izatea eta herriko ekintza eta festetan Abesbatza horren partaidetza izatea	10.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ALAI BATZA Elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	Azkoitian Aisialdiko talde indartsu baten edukitzea	Azkoitiko haur eta gaztetxoek aisialdia modu egoki eta hezitzaile batean pasatzeko aukera izatea	9.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Txalkor elkartea diruz laguntzea	Azkoitian txistuaren bultzatzea	Azkoitian txistuaren erabilera eta zeletasuna bultzatu eta bermatzea	15.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA.
SAHATSA dantza elkartea diruz laguntzea	Azkoitian dantza bultzatzea	Azkoitian dantza bultzatzea eta horretarako behar dituzten jantziak erosten laguntza	8.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA.
MATADERO ELKARTE KULTURALA Elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	Azkoitiko Matadeixen antolatzen diren antzerki topaketa eta "Bebarruko jardunaldiak" laguntzea	Matadeiko egitarauan hilabete batzuetan antzerki eta musika emanaldiak izatea.	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MATADERO ZINETOGRAM Elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	Azkoitian Zine Foruma bultzatzea.	Hiru astean behin Zine Forumeko pelikulak proiektatzea.	9.300,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

AZPEITIKO UDALARI MUNOAUNDI AZTARNATEGIKO egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Burdin Aroko, Munoaundiko aztarnategian indusketak egitea.	Gure arbasoen bizitzeko modua eta ohiturak ikertzea, gizarteari modu didaktikoan erakusteko	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Antonio Oteiza Fundazioak hainbat gai eta arte jarduerak landu eta sustatzea.	Antonio Oteiza eskultore eta idazlearen obra erakustera eraman, bere lan batzuen bilduma egin eta ahal den neurrian zabaldu	3.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
EUSKALERRIKO ADISKIDEEN Elkartearen egitasmoa gartzeko dirulaguntza	EUSKALERRIKO adiskideen elkarteak hainbat jarduerak sustatzen ditu Jauregian	urtero argitalpen interesgarriak kaleratzea	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Elkargune Institutoari gazteria arloko diru laguntza	Gazteria arloan dauden beharrei neurriko erantzun bat ematea	Azkoitian gazteria arloan dauden beharrei aurre egitea	428.300,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA.

**HEZKUNTZA ETA EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.**

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Azkoitia Euskera BHI etorria	Gazteen artean euskal kulturaren ezagutza sendotzea	Gazteek euskal kultura kontsumitzea	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA
Errotuluak, irudi korporatiboa, web guneak, programa informatikoak eta publizitatea eskaraz jartzeko diru laguntzak.	Errotuluak, irudi korporatiboa, web guneak, programa informatikoak eta publizitatea jartzea.	Azkoitian euskararen erabilera enpresetan eta establezimenduetan bultzatzea.	7.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	NORGEHIAGOKA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Enpresetan euskara planak egiteko edo garatzeko dirulaguntzak.	Enpresetan euskara planak egitea edo garatzea.	Azkoitian euskara sustatzea enpresa arloan.	6.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	NORGEHIAGOKA
Euskara ikasi eta UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren udak ikastaroetara joateko dirulaguntzak eta ez ohiko jarduerak puntualak.	Euskara ikastea eta UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren udak ikastaroetara joatea eta euskara sustatzeko jarduerak puntualak bultzatzea.	Azkoitiko herritarren artean euskara gaitasuna handitzea eta sortu daitezkeen euskara sustatzeko jarduerak puntualak sustatzea.	36.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	EBALUAZIO BAKOIZTUA
UKT (Urolaldeko Komunikazio Taldea) komunikabideak euskaraz garatzeko.	Informazioa euskaraz zabaltzea (papera, Telebista eta internet).	Azkoitian euskara sustatzea hedabideetan.	45.150,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA
Maxixatzen dirulaguntza	Euskararen erabilera handitzea	Euskaldunak aktibatzea eta kontzientziatzea	15.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA
Bertso paper lehiaketa	Azkoitian euskara eta bertako euskalkiaren erabilera bultzatzea bertsolaritzaren bidez	Azkoitiarrak bertso sortak idaztea bultzatzea eta Azkoitian, bertso idatzi sorta berriak izatea	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	NORGEHIAGOKA

**ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK.**

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Drogramenpeko tratatzeko dirulaguntzak	Adikzioen tratamenduko zentzura joaten diren Azkoitiarrei eta beraien senitartekoei erreabilitazioan laguntzea	Tratamendu zentzura joatearen oztopoa ez izatea garraioaren kostua; beraz, tratamenduaren hasiera eta jarraipena bultzatzea.	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Preso dauden senideentzako garraiorako diru-laguntzak	Euskal Autonomia Erkideko kanpoko preso dauden eta zigorraz preso dauden prebentzioz kartzelaturik dauden pertsonen sortzen zaizkien joan-etorrien gastuak zati batean diruz laguntzea.	Preso dauden edo prebentzioz kartzelatuta dauden enitartekoek preso dauden bitartean joateko zoztopo ekonomikoak zati batean diruz laguntzea.	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Marea Urdina elkartearen egitasmoa garatzeko diru-laguntza	Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiei zerbitzua bermatzea.	Azkoitian Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiak bitartez laguntzea.	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapituluaren kontura	IZENDUNA
GURUTZE GORRIA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru-laguntza.	Azkoitian Ongizate azkoitiarrentzat jarduerak dituzten irabazi gabeko jarduerak laguntzea	Gizarte arloan hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapituluaren kontura	IZENDUNA
PAUSO BERRIAK egitasmoa garatzeko diru-laguntza.	Azkoitian Ongizate azkoitiarrentzat jarduerak dituzten irabazi gabeko jarduerak laguntzea	Gizarte arloan hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	12.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapituluaren kontura	IZENDUNA
ODOL EMAILEAK elkartearen egitasmoa garatzeko diru-laguntza.	Azkoitian Ongizate azkoitiarrentzat jarduerak dituzten irabazi gabeko jarduerak laguntzea	Gizarte arloan hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, zailtasunak dituzten herritarrentzat eta	4.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

			gizarte-ekintza.				
KARITAS Elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	diru	Azkoitian Ongizate azkoitiarrentzat jarduerak dituzten gabeko jarduerak laguntzea	Gizarte arloan antolatzen irabazi elkarteen diruz	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioritza, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	12.425,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapitulua kontura	IZENDUNA
IZAN fundazioa elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	diru	Azkoitian Ongizate azkoitiarrentzat jarduerak dituzten gabeko jarduerak laguntzea	Gizarte arloan antolatzen irabazi elkarteen diruz	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioritza, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapitulua kontura	IZENDUNA
Elikagai Bankuari diru-laguntza		Gipuzkoako lurraldean elkagaien zarrastelkeria ren aurka egitea		Azkoitian elkagaien zarrastelkeria keriaren aurka egitea	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapitulua kontura	IZENDUNA
DARAHLI elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza.	diru	Azkoitian Ongizate azkoitiarrentzat jarduerak dituzten gabeko jarduerak laguntzea	Gizarte arloan antolatzen irabazi elkarteen diruz	Oporrak bakean programaren baitan Azkoitiko familiar artatzen duten bi adingabeen bidaia ordaintzea.	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapitulua kontura	IZENDUNA
AECC Elkartear dirulaguntza		Espainiako minbiziaren murrizteko pertsonek hobetzeko lana egiten da.	gizarteak eragina etaminbizi bizi duten bizitza berain familiei: psikologikoa, soziala, akonpainamendua	Urola kostan jarri dute egoitza. Asmoa da laguntza eskaini ahal izatea minbizi bizi duten azkoitiarrei eta berain familiei: psikologikoa, soziala, akonpainamendua	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko kapitulua kontura	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Jubilatuen etxearen mantenurako eta Jubilatuen etxearen baitan antolatzen diren jarduerak bultzatzeko diru-laguntza	Jubilatuen etxean dauden gastuei aurre egiteko eta bultzatzea. Azkoitiko pertsona nagusien parte hartzea eta gizarteratzea; pertsona nagusiak aktibo mantentzea; eta, indartzea adinekoek beraien artean eta komunitatearekin dituzten harremanak.	Jubilatuen elkartearen eskaintzen diren jarduerak kalitatezko bermearekin ematea.	35.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzaz garatzeko diru-laguntza.	Gobernuz Kanpoko Erakundeei garapen bidean dauden herrialdeetan burutzen dituzten programak aurrera eramateko diruz laguntzea, baita azkoitiarrak sentsibilizatzeko antolatzen dituzten ekintzak ere.	Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzea. Baita ere herrialde horien egoeraren berri azkoitiarrei ematea.	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
Gizarte larrialdietarako diru-laguntzak	Azkoitiarren gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak (ohikoak zein apartekoak) egiteko behar beste baliabide ez dutenei diruz laguntzea.	Azkoitiarren ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izatea; oinarritzko premiei buruzko gastuak bermatuak eduki (jantziak, hezkuntza...); eta, zorpetzeko gastuekin laguntzea	149.071,00	Finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren funtsen bitartez egingo da	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA
Etxeko eremuan tratatu txarrak pairatu dituzten emakumeei laguntzeko diru-laguntzak	EAEko legediak aurreikusten dituzten azkoitiar emakumeek eduki ditzaketen oinarritzko beharrezko asetzeko.	Emakume azkoitiarrek pairatu duten indarkeria matxistaren ondorioei aurre egiteko laguntza osagarria ematea	4.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA
Gizarte ongizate arloko hainbat diru-laguntza	Azkoitiarren gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak (ohikoak zein apartekoak)	Azkoitiarren ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izatea; oinarritzko premiei buruzko gastuak	35.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

	apartekoak– aurrebermatuak egiteko behar beste edukitzea baliabide ez dutenei (jantziak, hezkuntza...); zorpetzeko gastuekin laguntzea; eta abar			
Gizarte Zerbitzuen Maparen Garapena	Bailaran Zerbitzuen garatzea	Gizarte mapa	37.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura IZENDUNA

BERDINTASUNA ETA PREBENTZIOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Maxixatzen "gure gelatik" egitasmoa	Emakume idazleak eta literatura bultzatzea	Azkoitiko emakumeen literatura astea egitea	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Enpresetan Berdintasuna bultzatzeko dirulaguntza	Herriko enpresetan Berdintasuna bultzatzea	Herriko enpresen Berdintasuna bultzatzeko pausoak ematea	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA

OBRA ETA ZERBITZUAK ARLOKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Urkome ekarpena	Azkoitian nekazaritza sustatzea	Azkoitian nekazaritza bultzatzea	22.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren	IZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

				kontura	
Azkoitiko Udalerriaren gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak	— Eskaera egiten duten gazteen ohiko bizilekuak izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean.	—Bereziki pertsona gazteei laguntzea heuren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan. —Modu orokorrean, Azkoitiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea. — Arkitektura-oztopoak ezabatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako irrisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten alokairuko etxebizitzak eskuratzea sustatzea.	45.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
Azkoitiko Udalerriaren alokairu soziala sustatzeko laguntzak	— Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza. — Etxebizitzak eraberritu eta haien irrisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak. — Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan.	—Oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzen lagundu. —Hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu. — Etxebizitzak eraberritzea bultzatu eta herriko ekonomia suspertu. —Herriko merkataritza-jarduera sustatu. — Etxebizitzetan eta, orokorrean, egoitza-erakinetan, irrisgarritasuna bermatzea.	15.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA

INGURUMENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Ingurumen arloko dirulaguntzak	Azkoitian ingurumenaren esparruan jarduerak sustatzea	Azkoitian ingurumen arloan azterketak, ikastaroak antolatzea Tokiko ekonomia garapena sustatzeko jarduerak antolatzea	6.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Zaborra jasotzeko zerbitzu mankomunatuari diru laguntza	Azkoitian zaborra jasotzeko zerbitzu behar bezala ematea	Azkoitian zaborra jasotzea ahalik eta zerbitzu hobereana emanez.	1.311.653,04	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	ZENDUNA
KOMUNITATE Energetikoak sortzeko dirulaguntzak	Azkoitian Komunitate Energetikoak sortzea	Komunitate energetikoak sortuz energia berriztagarriak bultzatu eta energiaren erabileraren kontzientzia egitea	10.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
ZIZTU unibertsitate elkarte dirulaguntza	Ziztu Unibertsitate elkarte herriko unibertsitatera erraztasunak emanez	Herriko ikasleei unibertsitatera heltzeko garraio erraztasuna bultzatzea	25.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	ZENDUNA

<b>SUSTAPEN EKONOMIKO ARLOKO DIRULAGUNTZAK</b>					
<b>DIRU LAGUNTZA LERROA</b>	<b>HELBURUAK</b>	<b>LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK</b>	<b>URTEKO KOSTOA</b>	<b>FINANTZIAZIOA</b>	<b>ESLEIPEN PROZEDURA</b>
Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, enpresa sarea dinamizatzeko	Eskualdeko enpresen lehiakortasuna, garapena, etab. eraldaketa sustatzea du helburu, enpresen beharren arabera proiektuak garatuz	Eskualdeko enpresen elkarlana bultzatu eta bermatu, sarean parte hartzen duten enpresen lehiakortasuna helburu izanik.	71.460,85	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	ZENDUNA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

<p>Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, enplegua sustatzeko zerbitzua bultzatzeko</p>	<p>Enplegua modu aktiboan bilatzeko interesa duten langabe, edo enplegua hobetu nahi duten langileei, arreta espezializatua eta baliabideak eskaintza lan-bilaketan lagunduz. Eskualdeko beharretarako Enplegu eta Prestakuntza programak diseinatu eta garatu, langabeei lan munduratzeko eta beraien lan-merkatuko egoera hobetzen lagunduz. Urola Erdiko eragileekin elkarlanean, enplegu arloko informazioa eta eskaintza bateratua eta eguneratua jaso, herritarren eskura jarritz.</p>	<p>Eskualdean enplegua eta prestakuntza sustapenerako tokiko politika integrala garatu: bailarako langabe eta langabetu kolektiboekin egokitutako programa, zerbitzu, ekintza eta ikastaro desberdinak antolatu, bailarako enplegu eta prestakuntza eragileekin elkarlanean</p>	<p>186.990,34</p>	<p>Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura</p>	<p>IZENDUNA</p>
<p>Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, kontsumitzaileen arreta zerbitzuarentzat</p>	<p>Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa, laguntza eta orientazioa eskaintzea bere eskubideak behar diren bezela erabiltzaileei informazioa eta laguntza eskaintzea da.</p>	<p>Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa, laguntza eta orientazioa eskaintzea bere eskubideak behar diren bezela erabiltzeko Kontsumitzaile eta erabiltzaileei interesa daitekeen beste zentru publiko edo pribatu batzuen helbideak eta oinarrizko zerbitzuen berri ematea Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kexu eta erreklamazioei sarrera ematea, erregistratzea eta jaso izanaren berri ematea</p>	<p>6.213,85</p>	<p>Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura</p>	<p>IZENDUNA</p>

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, turismoa zerbitzuarentzat	Jomuga turistikoko erkargarri bat artikulatu non norbanako nahiz trade bidezko bisitariErakunde arteko turistek produktu, harremanak gauzatu zerbitzu eta baliabide eta erraztea, turistikoko kontsumitza dirulaguntzen ahal ditzaketen, kudeaketa eta eredu kontsumo horrek berriaren sortuko dituen kanpo zehaztepenarako errenta bidez bidea egitea eskualdeko sektore turistikoa garapena bilatzeko.	27.232,92	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Iraurgi Lantzen Sari diru laguntza, Loiola bisitari zentruarentzat	Bisitarien harrera eta harreta baliabide eta produktu turistikoen sustapen eta salmenta, eta eskualdeko jardura turistikoa antena lanak egitea	17.504,59	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, merkataritza bultzatzeko	Eskualdeko txikizkako merkataritza lehiakorragoa izan dadin, eragile ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatu eta horretarako beharrezkoak diren baliabide nahiz ekintzak garatu.	8.282,57	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Herrixen Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko Udalaren eta "Herrixen" Azkoitiko Merkatarien arteko Elkartearen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea, elkarteari gaitasun tekniko eta materialak eskainiz, merkataritzaren zerbitzura lan egiteko.	31.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerrian lokalak alokairua sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Alde Zaharreko lokal hutsak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketaren sustapena, Ekintzaile berrien bitartez.	24.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

		ekintzaileek jarduera berriak martxan jartzeko aukerak izatea.			
Azkoitiko Udalerrian merkataritza sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Merkatariek (elkartu naiz (elkartu gabeak), herriaren Ekintza ezberdinak antolatze laguntza ematea.	Azkoitiko merkatariek beraien Negozioetan kalitatezko zerbitzua ematea eta promozio kanpaina bateratuak egitea Herriko eskaintza hobetuz.	27.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA

**BIGARRENA.-** Diru-laguntzen plan estrategikoaren egokitzapena argitaratzea herritarrek horren berri izan dezaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratzea.

Antolakuntza Batzordeak, abenduaren 11n egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Juan Bautista Mendizabal, Asier Altuna , Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Astigarraga.

**ABSTENTZIOA:** Janire Igoa.

Puntu honetan Alkate andreak zehaztu du Udalak edozein diru-laguntza eman ahal izateko plan estrategiko bat onartuta izan behar duela. Kontuan izanda Aurrekontuetan diru-laguntza berri batzuk xedatzen direla nahitaezkoa da diru-laguntzen plan estrategikoa aurrekontura egokitzea.

Azaldutakoa gorabehera irizpena irakurtzera pasatu da eta beste udal alderdietako kideei hitza eskaini die.

Jose Joakin Etxaniz jaunak aipatu du funtsekoa iruditzen zaiola diru-laguntzak eta hitzarmenak plan estrategikoan ongi islatzea. Hori dela eta Azkoitia Baik alde bozkatuko duela adierazi du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

**Abstentzioak:** Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak 2023-2025 Azkoitiko udaleko dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2024ko aurrekontura egokitzea gehiengoz erabaki du.

**4.- AZKOITIKO UDALA UEMA MANKOMUNITATERA ATXIKITZEA ETA BERE ESTATUTUAK ONARTZEA.**

Honakoa da aurkeztutako adierazpena:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IRIZPENA**

**Gaia: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea**

**AURREKARIAK**

I.- 2023ko urriaren 18an Azkoitiko Udaleko Ordezkariek, Euskara Teknikaria eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko, aurrerantzean UEMA, ordezkariek batzartu ziren. Bilera horren xedea UEMA-ri buruzko informazioa lortzea zen bertan sartu ala ez erabakitzeko. Horregatik eta Udal Ordezkarien aldeko oniritziarekin, Euskara Teknikariak honako txosten hau igorri zuen:

**“TXOSTEN TEKNIKOA**

**GAIA: Azkoitiko Udala Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea aztertzea.**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LEKUA: Azkoitia.

ZEHAZTAPIDETZA:

TXOSTENA:

Honen bidez, jakinarazten da:

2023ko urrian 18an bildu ziren Azkoitiko udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (aurrerantzean, UEMA) ordezkariekin mankomunitateari buruzko informazio zehatza jasotzeko. Bertan jaso zuen gonbidapena kidea izateko.

UEMA 1991n sortu zen Aizarnazabalen. Orduan 17 udal bildu ziren herri bizitza euskaraz izan arren, udaleko jarduna gazteleraz zelako. Bizitza pribatua eta publiko euskaraz egiteko aukera irekitzea izan zen mankomunitatearen lehen erronka. Beraz, Hego Euskal Herriko 101 udal egun biltzen dituen mankomunitatearen helburua da udalerri euskaldunen begiradarekin euskararen normalizazioan eragitea. Izan ere, udalerri euskaldunetan birsortzen, garatzen eta transmititzen da euskara modu naturalean eta euskararentzat beharrezkoa da gune horiek babestea, indartzea eta zabaltzea. Baita eredu eta eragile izatea ere euskararen normalizazioan egoera horretan ez dauden gainontzeko herrientzako.

UEMAk hiru lan ildoen arabera antolatzen du bere jarduna eta urteko plangintza:

- Udalerri euskaldunetan euskararen normalizazioa lortzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea.
- Udalerri euskaldunen zaintza eta garapena.

Udalerri euskaldunak eta arnaguneak osatzen dute UEMA. UEMarentzat udalerri euskalduna da % 70etik gorako euskaldun indizea  $\{(euskaldunak + ia\ euskaldunak/2)\}$  duena. Arnagunea, berriz, ezagutza eta erabilera  $\{(etxeko\ erabilera + kaleko\ erabilera/2)\}$  % 80tik gora duena. Beraz, arnagune guztiak udalerri euskaldunak dira, baina, udalerri euskaldun guztiak ez dira arnaguneak. Hori horrela, Azkoitia, udalerri euskalduna da eta ez arnagunea.

	Ezagutza	Lehen hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kale erabilera
Euskara / Euskaldunak	79,6	61,2	53,74	66,9
Ia euskaldunak	9,2	---	---	---
Euskara eta	---	5,24	13,35	---



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

gaztelania				
Erdara /Erdaldunak	13,9	33,6	32,9	33,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria. EUSTAT 2016; Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, Azkoitia 2022. Soziolinguistika Klusterra.

Azken urteotan UEMAko herrien tipologia asko aldatu da. Ezagutza handitu ahala gero eta gehiago dira udalerrri euskaldunak UEMA kide izateko baldintzak betetzen dituztenak. Halaber, hiztunen profila heterogeneoa da, hiztun asko gaztelera euskaraz baino errazago moldatzen da, herriko arau soziala askotan ez da euskara eta ezagutzatik erabilera koska dago. Horren ondorioz, arnaguneak gero eta gutxiago dira eta herri euskaldunetan ezagutzak eta, batik bat, erabilerak behera egin dute. Horregatik, mankomunitateak erabaki du herriak sailkatzea eta sailkapenaren arabera estrategi berezituak martxan jartzea, eragin esparruak eta lehentasunak ez direlako berak Aulestin eta Hernanin. Sailkapena honakoa da:

- Arnagune beteak: euskararen erabilera % 80tik gorakoa dutenak.
- Arnagune erasanak: euskararen erabilera % 60-80 artean dutenak.
- Nagusitasunik gabeko udalerrri euskaldunak: euskararen erabilera % 60-40 artean dutenak.
- Erdara nagusi den udalerrri euskaldunak: euskararen erabilera % 40tik behera dutenak.

Azkoitia arnagune erasana da, erabilera % 66,9 baita.

Azkoitian ezagueraren (2016 % 79,6) eta erabileraren (2022 % 66,9) artean aldea dago beste herri askotan gertatzen den bezalaxe. Udalaren helburu nagusia da alde hori gutxitzea eta Azkoitian euskararen erabilera indartzea, udala ez ezik, herria ere, euskaraz funtzionatu eta bizitzeko, betiere, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuta.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (aurrerantzean, ETEL) dio udalaren eskumen propioa dela euskararen erabilera sustatzea, planifikatzea eta dinamizatzea udalean eta udalerrriko eremu askotan. Eskumen horiek garatzeko udalak aukera du bitarteko arauemaileak eta ekonomikoak jartzeko eta beste erakundeekin lankidetzan jarduteko bestelako formulak bilatzeko ere bai.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ETEL garatzeko 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa eman zen. Dekretu horrek euskararen erabilera udaletan sustatzea bermatzen du.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024. Bertan legegintzaldiko hizkuntza politikaren lan ildoak eta lau helburu estrategiko finkatu ziren euskararen ezagutza eta erabilera handitzen jarraitzeko, hizkuntza eskubideen bermean aurrera egiteko eta euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzat sendotzeko. 3. konpromisoan jaso zen erakunde arteko lankidetzat indartzea euskararen lurralde guztiekin. Aurreikusitako 3.3. ekimena izen zen hizkuntza politikak koordinatzea euskararen erabilera komuna eta nagusia den eremu geografikoetako erakunde publiko eta pribatu desberdinen artean, hizkuntza errealitate hori finkatzeko eta indartzeko. Horretarako proposatutako 3.3.1. azpi-ekimena izan zen UEMArekin eta eremu geografiko euskaldunetako erakunde publiko zein pribatuekin lankidetzat indartzea.

Azkoitiko udala bat dator UEMArekin helburu nagusiarekin eta lan ildoekin. Are gehiago, indarrean dagoen legeriaren arabera, Azkoitiko udalak eskumen propioa eta autonomia osoa du, Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 jarraiki, UEMako estatutuak onartu eta bertako kidea izateko. Horretarako, UEMako Batzar Nagusian dagozkion bost ordezkariak izendatu beharko ditu eta jasoko dituen zerbitzuengatik 2023an 15.505,49 euroko kuota ordaindu beharko du. Hori horrela, euskara teknikari honen proposamena da hurrengo plenoan Azkoitiko udalak UEMako estatutuak onartzea eta bertako kidea izateko behar diren izapideak egitea.

Txosten honek bere ondorioak izan ditzan,

Azkoitian, 2023ko azaroaren 17an

Euskara teknikaria

Ikusita Azkoitiko Udala bat datorrela UEMA-ren helburu eta lan ildoekin, mankomunitatean sartzeko prozedura aztertu egingo da.

ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenik eta behin aplikatu beharreko legedia zehaztuko da. Horretarako, Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudia eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, aurrerantzean 7/1985 Legea, arau xedapenetan adierazitakoa aintzat hartuko da.

Azkoitiko Udal Jardunbide Araubidearen 4.1.b) artikulua eta 7/1985eko Legearen 123. artikulua ezartzen dute Udalbatza Osoa dela Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzeko organo eskuduna. Honela diote:

***“Artículo 123. Atribuciones del Pleno.***

*1. Corresponden al Pleno las siguientes atribuciones:*

*f) Los acuerdos relativos a la participación en organizaciones supramunicipales.*

**4. artikulua. Udalbatza osoaren ahalmenak.**

*1. Edonola ere, Udalbatza Osoari dagozkio ondorengo eskumenak:*

*b) Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak onartzea...”*

Bestalde, adieraztekoa da ere Udal Jardunbide Araubideak haren 4.2 artikuluan xedatzen duela bere eskumenekoak diren hainbat kompetentzia ezin dituela Tokiko Batzordean edo Alkatearengan utzi, haren artean, Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak. Horregatik, Osoko bilkurak onartu behar du derrigorrez. Aipatutako artikulua honakoa ebazten du:

*“ Udalbatzak bere eskumenak burutzeko ahalmena Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari eman ahal izango dio, artikulua honetako 1. atalaren a), b) c), ataletan zehaztutako kasuetan izan ezik.”*

Arestian azaldutakoa kontuan izanda zehaztu egin behar da akordioa onartzeko beharrezkoa den gehiengoa. 7/1985 Legearen 123.2 artikulua hurrengoa xedatzen du:

*“Art.123.2*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2. Se requerirá el voto favorable de la **mayoría absoluta del número legal de miembros del Pleno**, para la adopción de los acuerdos referidos en los párrafos c), e), f), j) y o) y para los acuerdos que corresponda adoptar al Pleno en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.”

Aurreko paragrafoan xedatutakoari erreparatuz ulertu daiteke UEMAn sartzea onartzea Osoko Bilkurari dagokiola, gehiengo osoz.

Arestikoagatik, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Antolakuntza Batzorde Informatiboak,

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Azkoitiko Udalak UEMA mankomunitatera atxikitzea onartzea bere Estatutuekin batera. (I. eranskinean xedatutakoak.)

**BIGARRENA.-** Azkoitiko Udaleko ordezkari bezala hurrengoak izendatzea:

Ordezkaría	Alderdi politikoa
Titularra: Ana Azkoitia Ordezkoa: Sonia Vazquez	EAJ/PNV
Titularra: Maria Jose Arregi Ordezkoa: Igor Isusquiza	EAJ/PNV
Titularra: Asier Altuna Ordezkoa: Ainara Goenaga	EH BILDU
Titularra: Nagore Orbea Ordezkoa: Iraitz Otaño	EH BILDU
Titularra: Jose Joakin Etxaniz Ordezkoa: Nerea Machado	AZKOITIA BAI ELKARREKIN

**HIRUGARRENA.-** Alkate andrea baimentzea UEMA-n sartzeko beharrezkoak diren izapideak egiteko, eta hala badagokio, eman daitezkeen akatsak zuzentzeko.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**LAUGARRENA.-** Azkoitiko Udalak UEMA-n sartzeagatik eta jasoko dituen zerbitzuengatik 15.505,49€ko kuota ordaintzea, 1000.421.922.00.01 2024 partidari egotziz.

**BOSGARRENA.-** Akordioa Udalaren Webgune atalean, Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hilabeteko epean, edozeinek dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izateko. Aipatutako epealdian alegaziorik egon ezean hasierako onespena behin betikotzat onartuta geldituko da.

**SEIGARRENA.** – Ebazpen honen berri UEMA-ri eta Udal Kontuhartzaitetza Sailari ematea.

Antolakuntza Batzordeak, 2023ko abenduaren 11n egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Juan Bautista Mendizabal, Iraitz Otaño, Asier Altuna, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Astigarraga.

**KONTRAKO BOTOAK:** Janire Igoa.”

## I. ERANSKINA

### UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK

#### I. KAPITULUA.- ERAKETA, IZENA ETA HELBURUAK.

##### 1. ARTIKULUA.-

Aizarnazabal, Aduna, Ajangiz, Alegia, Alzaga, Altzo, Amoroto, Anoeta, Antzuola, Arama, Aramaio, Arantza, Arbizu, Arratzu, Artea, Aulesti, Baliarrain, Beizama, Belauntza, Bermeo, Berriatua, Dima, Elduain, Etxarri-Aranatz, Etxebarria, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gatika, Getaria, Gizaburuaga, Goizueta, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Leaburu-Txarama, Leitza, Lizartza, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Mutriku, Muxika, Oiartzun, Orendain, Orexa, Orio, Urdiain, Usurbil, Zaldibia, Zeanuri eta Zestoa udalek Mankomunitatea eratzea erabaki dute, Estatutu hauen 4. artikuluan adierazten diren bere kompetentziako zerbitzuak elkarrekin antolatu eta emateko.

##### 2. ARTIKULUA.-

a) - Aurreko artikuluan aipatutako erakunde lokalari “Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea” (UEMA) izena emango zaio, eta Aulestiko udaletxean izango du egoitza.

b) - UEMAK estatutu hauek agertzen dutenaren arabera jardungo du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

### 3. ARTIKULUA.-

Estatutu hauek martxan jartzen direnetik izango du UEMAk legezko nortasun eta gaitasun osoa bere helburuak betetzeko, mankomunitateek gaur dituzten eta etorkizunean izango dituzten arauak onartuz.

## II. KAPITULUA.- HELBURUEZ ETA BETEBEHARREZ

### 4. ARTIKULUA.-

1) -UEMAren helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jarduera zein udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Euskara zerbitzuak udaletako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatuko ditu.

2).- UEMako udalerrietan kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeko kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.

3).- UEMako udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.

4).- UEMako udalerrietako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu teknikoa antolatuko du mankomunitateak.

5).- Etorkinen integrazioa ahalbideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.

6).-Gainontzeko helburu eta zerbitzuei dagokionez, legeriak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumen jabe izango da.

7).-Bertako partaide diren udalen ahaleginek emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAk hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko den laguntza teknikoa eskainiko die.

## III. KAPITULUA.- INDAR EPEA

### 5. ARTIKULUA.-

UEMA indarrean egongo da bertako partaideek Batzar Nagusian gehiengo osoz kontrakorik erabakitzen ez duten bitartean. Mugarik gabeko epea izango du, eta udalek Estatutu hauek onartzen dituzten egun beretik izango da indarrean.

## IV. KAPITULUA.- ORGANOAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDUA

### 1. SEKZIOA: "Organoei buruz"



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 6. ARTIKULUA.-

UEMAko organoak honako hauek dira:

- a) Batzar Nagusia
- b) Lehendakaria
- c) Zuzendaritza batzordea

Hala izanik ere, Zuzendaritza batzordeak sortu ahal izango du Lan batzorde bereziren bat, edo egoki deritzon antolakuntza osagarriren bat, Batzar Nagusiaren onespenerekin.

**2. SEKZIOA:** Batzar Nagusiari buruz

## 7. ARTIKULUA.-

BATZAR NAGUSIA UEMAKo partaide diren udal guztietako ordezkariak osatzen dute, eta berari dagokio Estatutuen aldaketa egitea eta testu berriak onartzea.

## 8. ARTIKULUA.-

BATZAR NAGUSIAN mankomunitatea osatzen duten udalen ordezkariak ondorengo mailaketari dagozkionak izango dira:

- \* 1.000 arteko Udalak ..... kideak, 1
- \* 1.001tik 2.500rako Udalak..... kideak, 2
- \* 2.501tik 5.000rako Udalak..... kideak, 3
- \* 5.001tik 10.000rako Udalak..... kideak, 4
- \* 10.001tik gorako Udalak..... kideak 5,

Batzar Nagusiko bileretan ordezkari bakoitzak boto bakarria emateko eskubidea izango du.

## 9. ARTIKULUA.-

1.- Aurreko artikuluan aipatutako kideak udalerrri bakoitzeko Osoko Bilkuran izendatuko dira zinegotzien artetik, ondorengo baldintzen arabera:

- a) Kide bat edo bi izendatu behar duten udalerrietan legezko zinegotzi kopuruaren gehiengo osoz aukeratuko da. Gehiengo hau, lortuko ez balitz, handik 24 ordotara gutxienez, beste bozketa bat ekingo zaio.

Kasu honetan, gehiengo soila nahikoa izango litzatekeelarik.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.- a) Aukeratuak izan diren kideen agintaldia eta hautatutako Udal Batzarrena berdina izango da. Zinegotzien nahitaezko edo borondatezko kargu uzteak berarekin ekarriko du UEMako ordezkari zuzte ere. Kasu horretan udalak ordezkari berriak izendatuko ditu.

b) Udal Batzarretako partaideen agintaldia bukatu ondoren, Udal batzar berria osatu eta Mankomunitaterako ordezkaria izendatu arte, kulturaz eta hizkuntzaz arduratzen den zinegotziak beteko du lan hau ordezkaria izendatzen den arte.

#### 10. ARTIKULUA.-

BATZAR NAGUSIAren funtzionamendu araua honelakoa izango da:

a) BATZAR NAGUSIAk UEMako lehendakariak zuzenduko ditu, idazkariak lagunduta.

b) BATZAR NAGUSIAk ohizko eta ohiz kanpoko batzarrez jardungo du.

Deialdia Zuzendaritza batzordeari dagokio, eta honen izenean lehendakariak egingo ditu.

c) BATZAR NAGUSIAk urtean behin egingo du ohizko batzarra, urteko gestioaz eta aurrekontuaz eztabaidatzeko behintzat. Eta ohiz kanpoko Zuzendaritza batzordeak egoki deritzonek guztietan edo kide osoen bostenak edo lau udaletako ordezkariak eskatuta; azken kasu honetan, Zuzendaritza batzordea errekeritua izan den momentutik hogeita hamar egun ditu Batzar Nagusiaren deia zabaltzeko, beti ere hurrengo paragrafoak xedatzen duena errespetatuz.

d) Gutxienez, hilabete aurretik egingo dira batzarretarako deiak, gai garrantzitsuen inguruan udalek Pleno edo Eledunen Batzarrez erabakia hartzeko denbora izan dezaten.

e) Batzarra indar osoz eratzeko, ohizkoa edo ohiz kanpoko delarik, kide osoen gehiengo bertan izatea da beharrezko, lehenengo deian; ordubetik geroago, bigarren deian, bertaratzen direnen kopurua herena izanda, egingo da.

f) Aurreko artikuluetan horrela xedatuta egon arren, Batzar Nagusia deituzat eta behar bezala eratuzat emango da, kide guztiak bilduta daudenean eta Batzar Nagusia eratuzat aho batez ematen dutenean.

g) Premiazko gairen bat sortzen denean, Batzar Nagusia eratuzat hartzeko eta gaia eztabaidatu ahal izateko Batzar Nagusiko kideen erdiak gehi batek batzarraren hasieran berretsi beharko du premiazotasun hori.

#### 11. ARTIKULUA.-

BATZAR NAGUSIAren aztergai eta erabakitze moduari dagokionez:

a) Bai ohizko batzarrerako zein ohiz kanporako deiaz batera aztergai-zerrenda igorriko da. Erabiliko diren gaiak Zuzendaritza batzordeak onartuko ditu. Eta nahi edo nahi ez barneratu



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

beharrekoa izango da Mankomunitatearen helburuetariko izan eta kide osoen bostenak, edo lau herrietako ordezkariak, gutxienez eskatutakoa.

b) Batzarrak aztergai zerrendako gai guztiak aztertu eta erabakiko ditu, horretarako aurrera begira bigarren bilera egin behar badu ere.

## 12. ARTIKULUA.-

BATZAR NAGUSIAK gehiengo osoz nahiz beste modu batez hartuko ditu erabakiak, honakoaren arabera:

a) Eztabaidak lehendakariak zuzenduko ditu, eta orokorki, emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak.

b) Emandako botoen gehiengo soilak baino zabalagoa den bi herenekoa edo lau bostenekoa behar izango da Estatutuak berritzeko edo elkarte desegitea erabakitzeko, hurrenez hurren.

c) Batzar Nagusietako sesioetako aktak jasoko dira, dagokien liburuan bilduz, beti ere lehendakariaren eta idazkariaren sinadurarekin.

d) Batzar Nagusietako sesioetako aktak Mankomunitatea osatzen duten udal guztiei bidaliko zaizkie.

## 13. ARTIKULUA.-

BATZAR NAGUSIAK, Mankomunitatearen organo soberano bezala, izaera erabakitzailea izango du edozein gairi buruz eztabaidatzeko, beti ere hartutako akordioak Autonomia Lokalaren aurka joaten ez diren bitartean.

Hartu beharreko erabakia Autonomia Lokalaren printzipioaren aurka joango litzatekeela joko balitz, udal ordezkariak dagokion Udal Batzar osoaren oniritzia jaso beharko du. Bestelakoetan, berehala emango dio ordezkariak udalari hartutako erabakiaren berri.

BATZAR NAGUSIAri konkretuki dagokio Estatutuen aldaketa, testu berriak onartzea, udal berrien sarreran aldeko erabakia hartzea, Zuzendaritza batzordeko kideak onartzea eta lan horretatik kentzea, aurrekontuak onartzea, Zuzendaritza batzordeak zehaztutako urteko plangintza kontrolatzea, langileak hautatzeko kontratazio-oinarriak onartzea, langileen kontratazioa onartzea, mailegu eta kreditu eragiketak onartzea, UEMAko ondarea onartzea, eskuratzea eta besterenganatzea, eta UEMAko helburuak eskuratzeko egitasmoak onartzea Zuzendaritza batzordeak proposatuz.

**3. SEKZIOA:** Gainontzeko organoei buruz

## 14. ARTIKULUA.-

ZUZENDARITZA BATZORDEA osatuko dute:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

a) Lehendakariak

b) Batzar Nagusiak udal ordezkarien artetik aukeratutako hamar kidek, lurralde guztietatik ordezkaturik egon behar dutelarik.

**15. ARTIKULUA.-**

LEHENDAKARIA Batzar Nagusiak hautatuko du bere kideen artetik eta botoen gehiengo osoz. Gehiengo osoa lortuko ez balitz, atsedendia egingo litzateke eta eztabaidaren ondoren, gehiengo soilaz. Lehendakaria udal legealdi baterako aukeratuko litzateke.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza batzordea osatzen dutenen artetik LEHENDAKARI ORDEA izendatuko du, lehendakaria ez dagoenean edo berriak kargua hartu bitartean lehendakaria ordezkatzeko, azken honek dituen funtzio guztietan ordezkatzeko duelarik.

**16. ARTIKULUA.-**

Lehendakariari dagokio:

1. UEMako aginte eta administrazioa zuzentzea.
2. Batzar Nagusi eta Zuzendaritza batzordeko deialdiak izenpetzea, bilerak zuzentzea eta amaitutzat ematea.
3. UEMako lan zerbitzu eta ekintzak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
4. Ordain aginduak eta kontuak izenpetzea.
5. Edonolako lege egintzan edo lege arazoetan UEMako ordezkariak zuzentzea.
6. Mankomunitatearen jarduera ekonomikoa zuzentzea eta urteko aurrekontua, kitapena eta balantze ekonomikoa zuzentzea eta azaltzea.

Lan hauek guztiak egiteko, lehendakariak idazkariaren laguntza izango du.

**17. ARTIKULUA.-**

ZUZENDARITZA BATZORDEA hilean behin bilduko da. Hala ere, deialdia Zuzendaritza batzordeko partaide bakoitzak nahikoa denborarekin jasoko du, gai zerrendako puntuak aztertzeke denbora izan dezan. Horregatik, deialdia gutxienez hiru egun lehenago banatuko da, eztabaidatuko diren materialekin batera. Deialdian batzar-tokia eta bi deialdi agertuko dira.

**18. ARTIKULUA.-**

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN erabakiak normalean gehiengo arruntaz hartuko dira; hala ere, behean aipatzen diren kasuetan gutxienez gehiengo osoa eta Aholku batzordearen aldeko txostena ezinbestekoak izango dira:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. Ordenantzen, Estatutuen edo Araudien onarpen proposamena.
2. UEMako partaide berrien onarpena edo kanporatze proposamena.
3. Estatutuen aldaketa proposamena.
4. Aurrekontuen onarpen proposamena.

**19. ARTIKULUA.-**

ZUZENDARITZA BATZORDEAri dagokio UEMako funtzionamendua ziurtatzea; horretarako, UEMA zuzentzeko eta ordezkatzeko beharrezkoak diren gaitasun guztiak izango ditu, beti ere Legeak eta Estatutu hauek Batzar Nagusiari edo udalerrri bakoitzeko udalbatzei dagokiela irizten denean salbu.

Zuzendaritza batzordearen gaitasunen artean hauek ditugu:

1. Aurrekontua egikaritzea.
2. Mankomunitateko langileak kontratatzea.
3. Estatutuen aldaketa edo berrikuntza proposatzea.
4. UEMako helburuak eskuratzeko egitasmoak proposatzea.
5. Batzar Nagusiak erabaki dezan, UEMako kideak onartzeko edo kanporatzeko proposamenak egitea.
6. UEMako langileen sarrera azterketa araupetuko dituzten oinarriak prestatzea.
7. Barne araudia onartzea eta hala behar izanez gero, laguntza batzordea eta antolakuntza osagarriak sortzea. Gainera, aipatutako batzordeetako kideak izendatuko ditu berau osatzen bada.

**20. ARTIKULUA.-**

Mankomunitateko IDAZKARITZA eta KONTUHARTZAILTZETA betebeharrak, lehendakariaren udalean zeregin hori dituzten funtzionarioak edo funtzionarioek beteko dituzte. Hala ere, lehendakariak, Mankomunitateko beste udal bateko funtzionarioa edo funtzionarioak izendatu ahal izango ditu.

Gordelaritza eginkizunekin lehendakariak izendatutakoa arduratuko da.

Idazkariaren betebeharrak ondorengoak izango dira:

- 1) Batzar Nagusiak egiten dituen batzarreko aktak jaso.
- 2) Mankomunitateko organoek hartuko dituzten erabakien, beteko dituzten erabakien eta egingo dituzten ekintzen ziurtagiriak eman.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3) Mankomunitateko lehendakaritza, lehendakari ordea eta Batzar Nagusia aholkatu juridikoki, txostena beharrezkoa den edo eskatzen den bakoitzean.

4) Orokorrean, Tokiko legediak udaleko idazkariari eratzkitako eginkizunak betetzea Mankomunitatean.

Kontuhartzailearen betebeharrak ondorengoak izango dira:

1) Ohiko aurrekontuaren edo bereziaren aurreproiektua egitea, edo bere kasuan, haren kontuak prestatu eta egitea.

2) Mankomunitatearen kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea, haren kontabilitatea eramatea eta ordainketa eta diru sarrera aginduak ematea.

Mankomunitateko fondoaren erabilera, gordetze eta zainketa egitea diruzainari dagokio, egokiak diren ordainketak eta kobrantzak eginez.

#### V. KAPITULUA.- DIRU SARRERAK

##### 21. ARTIKULUA.-

UEMAko diru sarrerak honako hauek izango dira:

1. Entitate publikoetako diru laguntzak.
2. Bere jardunetatik sortutako diru etekinak.
3. Donazioak.
4. Udal bakoitzak ezarriko duen diru kopurua azken udal erroldan agertzen den biztanle kopuruaren arabera.

##### 22. ARTIKULUA.-

Urte amaierako balantzean diru etekinik balego, hurrengo urteko aurrekontura pasatuko litzateke diru kopuru osoa.

#### VI. KAPITULUA.- BESTE UDAL BATZUEN ELKARTERATZEA ETA KANPORATZEA.

##### 23. ARTIKULUA.-

UEMATik kanpo dagoen udalerrri bat onartzeko, beharrezkoa izango da:

1. Azken udal erroldaren arabera, bere biztanlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.
2. Udal eta udalerrri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3. Sartu nahi duen Udalbatza osoaren baieztoko erabakia, Mankomunitatearen Estatutuak onartuz, bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, eta hilabeteko informazio epea pasa ondoren.

4. Udal berria sartzearen aldeko erabakia hartu behar du UEMAK Batzar Nagusiko kideen botoen kopuruaren gehiengo osoz. Udal berriaren hasierako diru sarrera teknikoki ezarriko du Zuzendaritza batzordeak, UEMAKo ondasun eta zerbitzu kostuen arabera.

#### **24. ARTIKULUA.-**

UEMATik kanpora bere borondatez ateratzeko baldintza hauek bete beharko dituzte udalek.

1. Dagokion udalbatzak gehiengo osoz ateratzea erabaki ondoren, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenez egingo du eskaera.

2. Bere diru ordainketa eginik izan beharko du.

3. UEMATik ateratzeak sortzen dituen gastuak ordaindu beharko ditu, eta baita UEMAK lituzkeen zorretatik legokiokkeen zatia.

#### **VII. KAPITULUA.**

#### **25. ARTIKULUA.-**

Iparraldeko udalek Mankomunitatearen helburuekin bat egin ahal izango dute. Beraiek burutzeko dagozkion hitzarmenak sinatuko dira udal bakoitzaren eta Udallerri Euskaldunen Mankomunitatearen artean.

#### **ALDI BATERAKO ERABAKIAK**

Lehena: Estatutu hauek indarrean jarri eta bi hilabeteko epe barruan, UEMAKo aginte sailak martxan jarriko dira.

Bigarrena: Estatutuak indarrean jartzen diren hurrengo egunetik, hilabeteko epe barruan elkartutako udallerriek bere ordezkari diren kideak izendatuko dituzte, eta hauen izen abizen eta helbideak jakinaraziko dizkiote UEMAKo idazkariari."

Alkate andreak azaldu du alderdi bakoitzak bere ikuspegia duela gai honi buruz. Zehaztu du Euskara Teknikariaren txostenean azaltzen dela UEMAN sartzeko betebeharrak eta Mankomunitatean sartzearen onurak. Hori esanda, irizpena irakurtzera pasatu da eta gaia bozkatu aurretik beste udal alderdien ordezkariari hitza eskaini die.

Janire Igoa andreak adierazi du UEMA sartzek urtero diru kantitate bat suposatuko dio udalari eta, bere ustez, herrian beste lehentasun batzuk daudela, beraz, kontrako botoa iragarri du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu eta adierazi du Azkoitia euskararen arnas gunetako bat izanik, horrela jarraitzeko, euskara zaintzeko, eman beharreko pausuak ematea ezinbestekoa iruditzen zaiola. UEMA-k, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eginkizun garrantzitsu horretan laguntza handia eskainiko duela uste du, eta euskara beste arlo denetan, zeharka txertatzea ekarriko duela ez du zalantzan jartzen.

Azkenik, adierazi du poz handiz hartzen dutela urteetan oposiziotik egin den eskari hau onartzeak. Horregatik, Azkoitia Bai-ren aldeko botoa iragarri du.

Asier Altuna jaunak adierazi du EH Bildu-k beharrezkoa ikusten duela UEMAn sartzea euskara politikak sustatzeko akuilu aproposa izan daitekeelako.

Amaitzeko, adierazi nahi izan du pena ematen diola PSE-EEK akordio honen aurka bozkatzea, bere ustez, euskara sustatzea lehentasun bat izan behar litzatekeelako edozein alderdirako.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

**Kontrako botoak:** Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Udala UEMA Mankomunitatera atxikitzea eta bere estatutuak onartzea gehiengoz erabaki du.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate andreak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**IDAZKARIAK**

58

**IDAZKARITZA** - Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 - [idezkaritza@azkoitia.eus](mailto:idezkaritza@azkoitia.eus)  
AZKOITIKO UDALA - HERRIKO ENPARANTZA Z/G - 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: **ESKU624cc34e-24f7-49f4-a06d-11058732e29c**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023PLEN0020-AKTA/ACTA (AZKOITIKO UDALA)